



Mikel Zalbide, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuko burua:

**“Gizarte osoaren eginkizuna
maisuraren bizkar gaine-
ra ari gara botatzen”**

Alor ugarian jardun du 1951n jaiotako donostiar honek: Ingeniaritzako goi ikasketak egin zituen, Elhuyar Kultur Elkartearen sorreran hartu zuen esku, UZEIn hainbat urte eman zituen zientzi tekniken alorreko arduradun eta euskal unibertsitatea sortzeko ekimenean ere hartu zuen parte. Halere, urterik gehien Hezkuntza Sailean egin ditu. Bestalde, aurten euskaltzain oso izendatu dute Patxi Altunak utzitako lekua betetzeko. Elkarriketa honetan hezkuntzak euskara normalizatzeko lanean betetzen duen zereginaz egin dugu berba. Gure galderei zorrotz eta zehatz erantzunda, asmoen mundutik errealitate gordinera jauzi egin behar izan dugu ezinbestean.

9. or.

Erreportajea: Bolognako Ituna, Europako unibertsitateak bateratzeko bidean

Europako unibertsitate guztiek aldaketa garaiari oratu behar izango diote nahitaez, gogotik oratu ere. Bolognako Ituna abian da eta unibertsitateek lau urteko epe laburra besterik ez dute itun honen ondorioz egin beharreko berrikuntzetara egokitzeko. Funtsean, hezkuntza sistema bateratua ekarriko du hitzarmenak: titulu akademikoek balio bera izango dute herrialde batean zein bestean eta Europako edozein unibertsitatetan ikasteko erraztasunak areagotuko dira. Batzuek arrisku ugari ikusten dizkiote Bolognako Itunari; beste batzuek, berriz, onura handiak.

13. or.

Eztabaida: Eskolako ordutegiak: egokiak al dira haurrentzat? Eta gurasoentzat?

Gauza jakina da administrazio bakan batzuetan eta hainbat lantokitan goiz eta arratsaldean egin behar izaten dena lan.

Gainera, orain dela hamarkada batzuk gertatzen zenaz bestaldera, gaur egun emakumezkoak buru-belarri sartuta daude lan merkatuan. Beharrak familiako buruei eta bikoteei eguneko ordurik preziazuenak kentzen dizkienez gero, haurren eskola orduak gero eta gehiago moldatu behar zaizkio gurasoen lanaldiari. Beraz, nolatan bateratu daitezke lan orduak eta seme-alabek ikastetxeetan izan ohi duten ordutegia?

20. or.



3

Pertsonaia
Aizpea Goenaga

18

Lanean euskaraz
Itzulurte berri on!

25

Ba al zenekien?
Jaun Zuria



gelara!
ara!!!!

kabo porrak...



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
IVAPeko Administrazio Hizkera-
ren Atala

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Maria Agirre, Begoña Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Kike Amonarriz, Jose Mari Arakama, Manu Arrasate, Azpeitiko Euskara Patronatua, Idoia Beratarbide, Titto Betbeder, Luis Elizondo, Juan Manuel Etxebarria, Ismael Gorostiza, Luma, Jon Maia, Edurne Pérez de San Román, Patxi Petrirena, Nerea Pikabea, Josemari Robles, Joseba Terreros, Rosa Mari Urrutia, Josune Vélez de Mendizabal.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argiraturako artiku-
luluak berridatz daitezke bai
osorik, bai zatika, baina artiku-
luluak nondik ateratu diren
aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigor
bere egiten artikulua eta kola-
borazioetan agertzen diren
irritziak.

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.org

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

PERTSONAIA

Aizpea Goenaga, aktorea:

“Zentro dramatiko bat behar dugu Euskal Herrian”



Argazkia: EITBko Prentsa Bulegoa

Donostiakoa, aktorea eta oso ezaguna euskal antzerkian; izan ere, antzeppenari lotutako hainbat eta hainbat lan egin ditu, bai zinean, bai irradian, bai telebistan... Irakasle lanetan jardutea baino erakargarriago iruditu zitzaion aktorea izatea, eta Madrilen zein New Yorken osatu zituen ikasketak. Gaur egun, bi seme-alabaren ama izaki, lana eta familia uztartzen ditu. Harekin hitz egiteko aukera izan dugu eta bereizgarri dituen irribarre alai eta energia biziarekin hartu gaitu bere sorlekuan, Donostiako Urbieta kalean.

Irakasle izateko bidean zinen, ezta?

Irakasle ikasketak egin nituen antzerkikoekin batera. Gero, Madrilen antzerkia ikasi, *Antzerkin* urtebete eman eta, lanean hasi nintzenez, ohartu nintzen, neure buruari gehiago eskatu ezean, neure buruak ez zidala gehiagorako emango. Halako batean, 28 urte nituela, New Yorkera joatea erabaki nuen. Eskola eta irakasle onak izan nituen.

Irratian, telebistan, zinean... leku askotan ikusi zaitugu. Zer da bakoitzetik gehien erakartzen zaituena?

Irratiak burbuila batean sartzen zaitu: entzuleak beste aldean daudela ahaztu eta gustura aritzeko bidea ematen du, baina,aldi berean, oso goxoa eta lagunartekoa da, entzuleengana iristeko oso bide erraza. Irrati entzule porrokatua naiz. Zineak, berriz, irudia eta istorioa elkartzen ditu; antzerkira eta zinera joan behar duzu eta horretarako jarrera aktiboa ezinbestekoa da; zinea, beraz, sozialagoa da. Telebistak ere aukera ugari ematen ditu, baina ez du zerikusirik antzerkiaren askatasunarekin. Egia da gaur egun kolore bakarrekola dela, helburua ikus-entzuleak erakartzea baita. Azken batean, denok izan nahi dugu arrakasta.

Horrek zein ondorio dakarkio antzerkiari?

Nik orain arrisku bat sumatzen dut: abangoardia falta; horri aurre egiteko korrante urratzailea behar da. Molde bakarra erabiltzen dugu behin eta berriz eta, nire ustez, bide berriak jorratzeko ausardia izan beharko genuke. Baina ez da hain erraza. Antzerkian, adibidez, konpainiak bizi behar du, baina gero eta emanaldi gutxiago daude. Ondorioz, ikus-entzuleak erakarriko dituen lanak egin behar izaten dira.

Istorioak kontatzeko beharra al dugu?

Kontatzeko eta entzuteko beharra daukagu. Niri izugarri gustatzen zait entzutea; antzerkia eta zinea ikustea ere asko gustatzen zait. Bakoitzak kontatzeko modu berezia du: denok egiten ditugu pelikulak, denok irudika-

tzen ditugu istorioak, amets egiten dugu, beste pertsonen bizitza nolakoa ote den imajinatzen dugu...

Istorio horiek, ordea, ez dira zinean oso maiz kontatzen euskaraz...

Aktore euskaldun asko ditugu, baina agian ez dute behar adina zine egin. Askoz gehiago egin beharko litzateke, euskararen eta gure herriaren normalizazioa helburu. Oso zaila da industria boteretsu batekin lehiatzea, baina egin behar da. Bestela, zergatik idazten dira liburuak euskaraz? Orduan, zergatik ez zinea ere euskaraz? Zergatik babesten da hain gutxi euskarazko antzerkia? Zentro dramatiko bat behar da Euskal Herrian, hemengo profesionalek lan egonkorragoa izan dezaten. Horrez gain, kontsumitzaileek ere zinea ikustera joan behar dute!

Bernardo Atxagaren *Zeru horiek eleberrian oinarritutako film bat zuzendu duzu...*

Nik egin dudana lan potoloena izan da. Gainera, euskara hutsean ekoitzi den lehenengo telebista filma izan da, bitxikeria bat. Atxaga zalea naiz, oso. Katalunian egin da ia osorik. TVEk ekoitzi du, eta hori, nire ustez, meritu ikaragarria da. Azken batean, beste diru iturri bat zabaldu da. Miarrizko FIPAn aurkeztu zen; Malagako Zinemaldian eta hemengo Giza Eskubideen Zinemaldian ere aurkeztu da. Orain, Cervantes Institutua atzetik dabil.

Zein da eskuartearen duzun hurrengo proiektua?

*Ni ez naiz txotxolo, ez tontolo, ez ezer haur antzerkiarekin ari naiz orain lanean. Neuk idatzi dut gidoia eta POKek ekoitziko du. Bestalde, *Glu Glu* konpainiarentzat *Ama, quiero ser lehendakari* antzezlan idazten ari naiz. TVErekin egingo dugun bigarren telebista filmerako gidoia ari naiz idazten, *Zorion perfektua* izeneko lanerako, hain zuzen.*

Nerea Pikabea
Kazetaria

Diplomatikoa

Behin batean kazetari batek galdera hau egin zion Ekialde Ertaineko errege, jeke edo emir bati, jaun handi bati: “Zer da diplomazia?”. Eta kontakizun baten bidez erantzun zion jaun handi hark. Hona:

“Gure arbasoetako batek, bere etorkizuna jakin nahi eta, konfiantza handieneko aholkulariari dei egin zion eta galdetu:

–Esadazu: nolakoak izango dira nire bizitzako hurrengo urteak?

Eta aholkulariak, izarrek zer adierazten zuten ikusi behar zuela aurrea eta, hurrengo egunean erantzungo ziola. Hala, biharamunean:

–Jauna, etorkizun latza izango duzu, gertaera negargarri bezala, nahigabeek astindua: emaztea hilko zaizu laster; zure seme bakarra ere bai, eta bilobak ere zu baino lehenago joango dira hemendik. Atsekabeak ilunduko dizu bihotza eta bakardadeak erreta biziko zara zure heriotzako ordura arte.

Gure arbasoa hainbeste haserretu zen, aholkularia hiltzeko agindu zuen.

Aldi bat pentsakor pasatu ondoren, bigarren aholkulariari deitu eta galdera bera egin zion. Eta bigarrenak ere aurrekoaren erantzun bera eman zion: emaztea, semea eta bilobak, guztiak hilko zirela eta bakar-bakarrik geratuko zela. Bigarren aholkularia ere hiltzeko agindua eman zuen nire arbasoak.

Oso triste pasatu zituen hurrengo egunak. Aholkulariek esandakoek hala beharko ote zuten ba? Hirugarren aholkulariari galdetzea erabaki zuen. Hirugarrenak, ordea, gertatuaren berri bazuen eta hau erantzun zion:

–Jauna, zorionak eman behar dizkizugu: izarrek adierazten digute luzaroan biziko zarela, emaztea eta semea



baino luzaragoan; baita bilobak baino ere. Zorionak, bada, jauna.


Gure arbasoari gustatu egin zitzaion erantzuna eta saritu egin zuen hirugarren aholkulari hura. Lehen bi aholkulariek esandako gauza bera esan zion hark ere gure arbasoari, baina bestela, beste modu batera: hura diplomatikoa zen”.

Laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Bilerakide, administrazio agiriak sortzeko lanabes berria

Erabakiek jartzen dute erakundeen errota martxan. Edozein erakundetan erabakiak hartzeko bi lagun baino gehiago elkartzen direnean, adostutakoa idatziz jaso ohi da akta edo bilera agiriaren bitartez. Azpeitiko Euskara Patronatuaren ekimenez, Beasaingo Goi System enpresak garatu du *Bilerakide*: aktak, bilera deiak eta erabakien jakinarazpenak automatikoki sortzeko gaitasuna duen euskarazko aplikazio informatikoa.

Erakundeen jarduera guztiaren iturburuan erabakiak daude. Erabakiak hartu ondoren hasten dira mamitzen era bateko eta besteko proiektuak. Eta erabakiak, erakundeek ari garela, taldeetan hartzen dira: batzordeetan, zuzendaritza organoetan... Erakundeetako batzordeek eskuarki modu autonomoan jarduten dute. Bakoitzak bere teknikaria edo idazkaria izan ohi du, eta horiexek arduratuko dira geroago aktak edo bilera agiriak egiteaz, bakoitzak bere erara eta ustez ahal duen modurik egokienean moldatuta. Horrela, zenbat batzorde, hainbat akta eta agiri eredu izango dira.

Hemen aurkeztu behar dugun *Bilerakide* aplikazio informatikoaren xede nagusia, hain zuzen, bileren aurretik eta ondoren sortzen diren agiriak bateratzeko eta erabilgarriago egiteko eredu sortzea edo moldatzea izango da. Aplikazioko agiriak atontzeko, IVAPek egindako lanak hartu ditugu oinarri.

GOISYSTEMgo Udala
Euskara Batzordea

Bilera-agiria

EUSKARA BATZORDEA

BILERAREN XEHETASUNAK

Noiz: 2005-06-22, ASTEAZKENA Non: AZPEITIAN, I. BILERA OELA

Bilera-zenbakia: 23 Hasiera-ordua: 09:30

Bilera mota: OHIKOA Amaiera-ordua: 12:00

Deialdia: LEHENENGOA Onarpen-eguna:

ETORRI DIREN BILERAKIDEAK

Partaide mota	Izen-abizenak
BATZORDEBURUA	Martin Garmendia Murua
EA	Martin Garmendia Murua
EH	Ane Gorrotxategi Imaz
IDAZKARIA	Jose Luis Garcés Alzaga

AZTERGAIAK

1.- Bilerakide onartu: 2003ko irailaren 11koa.
2.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Erabilgarritasuna

Aktak eta horiei lotutako gainerako agiriak modu errazean sortzeko aukera ematea da *Bilerakide* aplikazio informatikoaren helburu eta balio nagusia. Alde horretatik, oso erabilgarria da bai agiriak taxutzeko ardura duten lagunentzat (idazkariak edota batzordeetako arduradunak), bai bileretan parte hartzen duten guztientzat. Batzuei, idazkariei, agiriak egin eta antolatzerakoan lana erraztuko die; besteek, berriz, sortutako agiri guztiak aise aurkitzeko eta eskura izateko aukera izango dute.

Baimenak eta sarbideak

Bilerakide sarean erabiltzeko prestatuta dagoen aplikazio informatikoa da. Erabiltzaile bakoitzak bere ordenagailutik *Bilerakidera* sartzeko aukera dauka, pasahitza edo sarbiderako kodea erabiliz.

Aplikazioan administratzaile bat izango dugu eta horren arduraren bileretan parte hartzen duten pertsonen datuak (batzordekide, zuzendari, alkate, idazkari, zinegotzi edota teknikariak) sartzeko izango da, bai eta agintaldi bakoitzean sortutako diren batzordeen nahiz horietako kide guztien datuak zehaztea ere. Erabiltzaileak nolako zeregina halako baimena izango du. Adibidez, udalen kasuan, batzorde bateko kideek organo horren agiritan sartzeko baimena besterik ez dute izango; alkateak, aldiz, agiri guztietarako sarbidea izango luke.

Lanen automatizazioa

Batzorde jakin baten barruan egin daitezkeen bilerak zehazten lagun dezake aplikazio honek, modu errazean; izan ere, lanabes honetan hainbat atal ezarri dira, besteak beste landu beharreko gaiak, horiei lotutako agiriak (hartutako erabakiak, jakinarazpenak...) eta bilera parte hartzen duten lagunen nahiz balizko gertaeren ingurukoak.

Bilera zehaztuta dagoenean, programak automatikoki sortuko ditu bilera jakin horri lotutako agiriak: deialdia, jakinarazpena –hartu agiria eta guzti–, bilera agiria, erabaki proposamena, ebatzitakoen jakinarazpena eta laburpena. Halaber, programa honek bereizten ditu ohiko batzordeak (batzorde iraunkorrak) eta aldi baterako, gai zehatz eta jakinak lantzeko, eratzen direnak.

Agiriaren bilaketa erraza

Erabiltzaileek inongo zailtasunik gabe aurkitu ahal izango dituzte bileretako agiriak, atxikitako dokumentazioa barne. Bilaketa errazteko, aplikazioak hainbat irizpideren arabera bilaketak egiteko gaitasuna dauka: bilera dataren arabera, batzordearen arabera, bilera motaren arabera, landutako gaiaren arabera...

Denbora

Batzordeetako kide, teknikari eta gainerakoek zein bileretan hartu duten parte eta bilera bakoitzean guztira zenbat denbora egin duten ere aise ikusteko aukera izango dute.

Malgutasuna

Aktak sortzeko aplikazio berri honek badu beste abantaila bat ere: malgutasuna. Izan ere, tresna honi aldaketak egin dakizkioke, erakunde bakoitzak behar dituen egokitzapenei jarraituz, hau da, erakunde bakoitzaren beharretara molda daiteke inolako azarorik gabe.

Azpeitiko Euskara Patronatua

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP): euskararen aldeko hizkuntza politika bat obratzen Ipar Euskal Herrian

Sar hitza

1990eko hamarkadan, Ipar Euskal Herriko eragile anitz –erakundeak, hautetsiak eta gizarte zibileko ordezkariak– elkarretaratu ziren, urraspide berean lurraldearen geroa asmatzeko, eta ados jarri ziren hizkuntza eta kultura ondareak definitzeko tokiko garapenaren indar nagusi bezala.

Euskalgintzaren alorrean ekintza publikoa egituratzeko bidean beste urrats bat egin zen 2001. urtearen hastapenean. Urte horretan, Estatua, Akitania Eskualdea, Departamendua, Hautetsien Kontseilua eta Euskal Kulturaren aldeko Herrien Elkargoa elkarretaratu ziren eta Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoa sortu. Erakunde horiek elkarretaratzea erabaki zuten eta hizkuntza politikarako lehen egitura kudeatzea.

Epe horretan zehar, hizkuntzagintzan ari diren egitura askok, maizenik elkarteek, aldaketa horiek biziki lagundu eta akuilatu zituzten. Alor anitzetan beren ekintzak garatu dituzte: eskola inguruko ekintzak, jende helduen euskal ikaskuntza, hizkuntzari buruzko ikerlanak, hedabideak, liburugintza, gizarteko euskararen erabilera, ikastresnen ekoizpena...

Aspaldiko hitzarmenei esker, egitura anitz bada oraindik, botere publikoek hobeki laguntzeko xedea baitute.

Hamarkada berean, ama eskoletan eta lehen mailan, nola eskola publikoetan hala ikaskuntza katolikoan eta ikastoletan, euskarazko ikaskuntzaz baliatu diren ikasleak bikoiztu egin dira eta gaur egun ikasleria osoaren bostetik bat dira.

Halere, ahalegin horiek eta handituz doan mugimenduak ez dute oraindik funtsez geldiarazi euskararen gainbehera: hiztunen kopurua laster ttipitzen ari da, familia barneko hizkuntza jarraipena ez dabil eta erabilera atzera doa Ipar Euskal Herriko eskualde guzietan.

Zorionez, euskararen atzerakada ez da ezinbestekoa. Alabaina, ezaugarri batzuk badira itxaropena ematen digutenak:

- ▶ Azken soziolinguistika inkestan ezaugarri zenbaitek onera egin dute.
- ▶ Euskalgintzan diharduten eragileek beren trebetasuna eta kartsutasuna erakusten dute.
- ▶ Hiztunen kopurua ez da gutiestekoa.
- ▶ Gero eta familia gehiagok beren haurrentzat eskolako euskararen ikaskuntza hautatzen dute edo hauta lezakete.
- ▶ Hautetsien eta herritarren andana handi batek euskara biziberritzeko xedea adierazten du.
- ▶ Berrikitan hizkuntza politika eraikitzen ari da.

Ahalegin hau euskalgintzaz eta euskal kulturaz arduratzen direnen ekimenetan oinarrituko da. Euskal Herriko gizarte zibilaren partaide askori adierazi behar zaie interes handia luketela, baldin eta obra honetan parte hartuko balute. Botere publikoen gain da norabideak hartzea eta jarraipena segurtatzea. Helburu honetarako sortu da Euskararen Erakunde Publikoa (EEP).

Erronka horri aurre egiteko bildu dira elkargo batean dauden Euskal Herriko udalerriak, Hautetsien Kontseiluak ordezkatzeko dituen Euskal Herriko hautetsiak, Akitania Eskualdeko Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia eta Estatua. Elkarrekin erabaki dute zuzenbide publikoko egitura bat antolatzea eta definitzea, eta euskararen aldeko hizkuntza politika bat obratzea.

Euskararen Erakunde Publikoak segurtatuko du hizkuntza politikaren obragintza eta, alor bakoitzean, oinarritzat hartuko horren araberako egitura publikoak eta pribatuak, gai baitira erabaki ziren ekintzak obratzeko.

EEPren antolaketa eta eginbeharrak

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) Ipar Euskal Herriko botere publikoen maila ezberdin guziak biltzen ditu, hala nola, Frantses Estatua, Akitania Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal Kulturaren aldeko Herrien Elkargoa (horrek biltzen dituelarik Ipar Euskal Herriko udalerri guziak) eta Hautetsien Kontseilua.



Erakunde bakoitzeko ordezkariak osatzen dute EEPren administrazio kontseilua. Erakundeek dute EEP diruztatzen; EEPren aurrekontua 1.733.000 €-koa da.

Administrazio kontseiluak ditu helburuak finkatzen, norabideak definitzen eta erabakiak hartzen. Hori gauzatzeko EEPk talde tekniko bat antolatu du, lau langilek eta zuzendari batek osatzen dutena.

Bestalde, administrazio kontseiluko kideen xedea izan da aholku egitura bat eraikitzea eta sustatzea, euskalgintzan diharduten eragileekin eta adituekin. Aholku Batzorde horren helburua gogoetak aberastea da, euskalgintzako eragileen esperientzian eta gaitasunetan oinarrituz. Horrela, Aholku Batzordeak funtzio bikoitza du:

- ▶ Kontzertazio eta gomendio funtzioa.
- ▶ Aditu funtzioa.

EEPk hiru lan arlo nagusi ditu bere gain:

- ▶ Euskalgintzako eragileei zuzendutako diru-laguntzak kudeatzea: lehenago hitzarmen berezian bideratuak ziren laguntzak eta instituzioek banatzen zituzten laguntzak bere gain hartzen ditu EEPk; euskalgintzako solaskide bakarra bihurtu da.
- ▶ Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza egituratzea eta garatzea: eginbehar berria eta esperimentalaren botere publikoentzat. Frantziako Hezkuntza Nazionalak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak hitzarmen bat izenpetu zuten, 2004ko azaroaren 26an. Hitzarmen horren helburua Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren eta Estatuaren arteko elkarlan iraunkor baterako egitura bat zutik ezartzeko eta ibilarazteko baldintzak finkatzea da, departamenduan euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza garatzeko eta egituratzeko. Hitzarmen hori gauzatzeko ardurua Euskararen Erakunde Publikoari dagokio.
- ▶ Euskararen presentzia sustatzea bizi sozialean: hori ere gai berria Ipar Euskal Herriko botere publikoentzat. Euskalgintzako eragile batzuek landu dute eta hainbat ekintza bideratu, baina botere publikoek ekimen guti hartu dituzte (gehienbat bide seinaleetan).

Eginbehar nagusi horietaz aparte, beste funtzio batzuk bete behar ditu EEPk: harremanak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoko hizkuntza eragileekin, behatoki eta jarraipen funtzioak, adierazleak finkatzea...

Lehen bilana eta ondoko erronkak

Euskararen Erakunde Publikoa 2004ko azaroan sortu zen. Lehen urrats batean lehentasuna eman izan zaie finkatuak izan ziren hiru eginbehar nagusiei eta bereziki arlo berriei: irakaskuntzari eta bizi sozialari.

Irakaskuntza arloan, bi lan nagusi eramanak izan dira:

- ▶ *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa* txostena sortzea; Ipar Euskal Herriko irakaskuntzaren eskaintzaren argazki zehatz bat osatzen du txosten horrek.
- ▶ *Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza. Epe luzeko programazioa, 1. zatia*: lan programa bat zehazten du hiru irakaskuntza sareentzat.

EEPk zerbitzuak, 2006. urtean, programazio hori obratzen hasi dira eta lehen emaitzak baikorrak izan dira: sei ikasgela elebidun berri irekitzea sare publikoan, partaidetza teknikoak abiatzea sare pribatuekin (Seaska federazioa eta katolikoarena), euskarazko irakasle postuak esleitzea...

Euskararen presentzia bizi sozialean sustatzeko arloari dagokionez, besteak beste, EEPk administrazio kontseiluak erabaki du euskara teknikari sare bat sortzea eta antolatzea. EEPk Ipar Euskal Herriko herri elkargoei proposatu die euskara teknikari baten postua sortzen laguntzea (teknikoki eta diruz). Teknikari horiek hiru eginbehar ukango dituzte:

- ▶ Euskara bultzatzeko urraspide batean jadanik sartu diren edo horrelako urraspide batean sartu nahi duten herriko etxeak laguntzea.
- ▶ Herri elkargo(eta)ko eskualdeko eragileei buruz (enpresa, elkarte, herriak, eragile publiko...) euskararen presentzia eta erabilera sustatzea eta garatzea.
- ▶ Itzulpen lanak segurtatzea lurralde kolektibitate eta eragile publikoentzat.

Horrez gain, aipa daiteke Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuarekin abiatuak izan diren gogoetak lankidetzaren hitzarmen bat finkatzeko. Helburua 2006. urte bukaerarako hitzarmen hori izenpetzea izango litzateke.

EEPren erronka nagusia 2006. urte bukaera aitzin izango da hizkuntza politikako egitasmo bat finkatzea. Urraspidea abiatua izan da eta bertan parte hartzera gonbidatuak izan dira Aholku Batzordeko kideak. Egitasmoak bi helburu ditu:

- ▶ 2006. urtean zehar hizkuntza politika bat definitzea 2007-2010 urteetarako.
- ▶ Egitasmoen egitarau bat apailatzea:
 - Politika hori egitasmoz eta egutegiz gorputzen duena.
 - Obratzen jarraitzeko adierazleak aitzin ikusten dituen.
 - 2007-2010 urteetan lehentasuna ukan beharko duten diru isurtzeak bideratzen dituen.

Epe motz batez, Euskararen Erakunde Publikoak hiru desafio gaititu behar zituen:

- ▶ Jadanik bultzatuak izan ziren ekintzen jarraipena segurtatzea eta garatzea.
- ▶ Botere publikoentzat berriak ziren arloak (irakaskuntza eta euskararen presentzia bizi sozialean) ikertzea eta norabideak eta ekintzak gauzatea.
- ▶ Hitzarmen Bereziari segida ematea, 2007-2010 epealdirako hizkuntza politikako proiektu bat landuz.

Lehen urtean, Euskararen Erakunde Publikoak hiru sail horiek ireki ditu, norabideak finkatzen hasi da eta lehen ekintzak eta esperientziak gauzaten ere. Orain doakio ekintza horiek jarraitzea eta garatzea luzarora.

Titto Betbeder
Euskararen Erakunde Publikoko teknikaria



Mundua on-line

Ordenagailu eramangarriak haur guztientzat

Nicholas Negroponte proiektuburuaren esanetan, garapen bidean dauden herrialdeetako umeei zuzendutako ordenagailu eramangarri merkeak banatzeko prest egongo dira 2007ko apirilean. Horien prezioa 130 eta 140 dolar artekoa izango da, eta ez 100 dolarrekoa, hasiera batean aipatu zen moduan.

2B1 edo *Children's Machine* izeneko ordenagailuaren tamaina koaderno batena izango da; halaber, gogorra, arina eta kontsumo txikikoa izateaz gainera, Interneten nabigatzeko aukera ere emango du, bi antenari esker. Bateria pedal baten bitartez birkargatu ahal izango da. Proiektua OLPC erakundeak bultzatzen du (*One Laptop Per Child*), eta 2008an prezioak merkatzea espero dute, 100 dolarrera jaitsi arte.

Makina hauei esker, herrialde pobreetako hurrek leihota eta tresna berria izango dute eskuragarri: mundua ikusteko leihota eta pentsatzen nahiz ikasten lagunduko dien tresna.

Ordenagailuak ez dira zuzenean salduko, garapen bidean dauden herrialdeetako hezkuntza ministerioek banatuko baitizkiete ikastetxei.

Proiektuaren gaineko argibide gehiago helbide honetan: www.laptop.org

Luis Elizondo
L-Elizondo@euskadi.net

Filosofo ekintzailea



FERNANDO MUNIOZGUREN XX. mende amaierako euskalgintzaren erreferentzia aktibo eta garrantzitsua izan da, euskara bizitzeko molde baten eredu. Eibarko hileta omenaldian esandakoak entzun eta *Eta Kitto*-ko ale bereziaren artikuluak irakurri ondoren, neroni ere harritu egin naiz berak burutu edo eragindako lanaren tamainarekin.

Filosofia maite zuen, hausnartu eta ideien errota-ri eragitea, baina, berehala, proiektu berriak martxan jartzeko asmoz. "Biderkatzailea" zen maite zuen hitzetako bat.

Tokian tokiko egitasmoak (*Eta Kitto*-ko sortzailea) eta nazio-ikuspegi (Topaguneko burua) uztartu zituen; udalen (euskara zerbitzburua) eta Euskara Elkartearen arteko harremanak bultzatu zituen; eta euskalkiak indartuz (*Badihardugu* elkartearen sortzailea), hizkuntzaren garapena sustatu nahi izan zuen, beste ekinbide askoren artean. "Sinergia" zen maiz errepikatzen zuen hitzetako bat.

Eta *elkarjanerako* dinamiketara indar gehiegi xahututako euskalgintzan, "elkarlana" zen gehien praktikatu zuen hitzetako bat.

Kike Amonarriz

Artxiker, artxibo digitala

Deustuko Unibertsitatean aurkeztu zen ekainaren 14an *Artxiker* artxibo digitala. *Baionako Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Guneak* (IKER) eta *Centre pour la Communication Scientifique Directe*-k (CCSD) egindako elkarlanari eta ahaleginei esker, euskarari lotutako ikerlanak kontsulta ditzakegu sarean, zuzen eta doan. Dokumentuak alorka, urteka eta egileka kontsultatu ahal izango dira. Nahi izanez gero, izena eman ondoren, norberaren lanak ere bertan jar daitezke, artxiboaren baldintzak betetzen badira. Hiru bertsio ditu: euskaraz, ingelesez eta frantsesez.

Euskarari buruzko ikerketak egiten dituzten hainbat unibertsitatearen babesa du: Michel de Montaigne Unibertsitatea Bordeaux-3, Paue eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea Publikoa eta Deustuko Unibertsitatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, web gune hauek ikusi: www.iker.cnrs.fr
www.ccsd.cnrs.fr

Etxepare Euskal Institutua

Euskara eta euskal kultura munduan zabaltzeko eta bultzatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak Etxepare Euskal Institutua sortuko du Donostian. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikia, berezko gaitasun eta izaera juridikoa duen zuzenbide pribatuko herri erakundea izango da. Institutu berriaren esku geratuko dira Eusko Jaurlaritzak gaur egun arlo horretan egiten dituen lanak eta antolatzen dituen ekimenak.

Lingu@net Europa

Hizkuntza bat ikasten edo irakasten ari bazara, *Lingu@net Europako* web gunea ederto etorriko zaizu, HABEren lankidetzari esker, edozein hizkuntza moderno ikasi eta irakasteko baliabideei buruzko informazio guztia bertan aurkituko baituzu, doan: ikaslea bazara, zure hizkuntza gaitasuna zehazteko, hizkuntza modu eraginkorrean ikasteko, beste ikasle batzuekin harremanetan jartzeko, ikasteko materiala aurkitzeko... erabil dezakezu; hizkuntza bat irakasten ari bazara, zure prestakuntza hobetzeko, metodologia egokitzeko, ikerkuntzen berri izateko... izango zaizu baliagarri. Hizkuntzen irakas-ikaskuntzan adituak direnek garatuta, web gune honek kalitate-bermea duten 3.500 baliabide baino gehiago eskaintzen ditu.

Web gune osoa ikus dezakezu honako hizkuntza hauetan: euskara, bulgaria, katalana, daniera, nederlandera, ingeleza, estoniera, finlandiera, frantsesa, galegoa, alemana, greziera, islandiera, italiara, lituaniera, maltera, poloniera, portugesa, gaztelania eta suedieraz.

www.linguanet-europa.org

Mikel Zalbide, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuko burua:

**“Gizarte osoaren eginkizuna
maisuu-maistren bizkar gainera
ari gara botatzen”**



Argazkia: erabili.com

Mikel Zalbideren esanetan, euskararen egoera eta euskalduntze prozesua ikuspegi zabalago batetik aztertu behar da; izan ere, sarritan auzi horri buruzko iritziak eta azterketak azalekoak dira, gai korapilatsu honetatik hanka-puntetan igaro nahi bage-nu legez. Euskalduntzearen ardura gizarte osoarena da, ez hezkuntzarena bakarrik, askok eta askok lan hori hezkuntzari eta irakasleei besterik ez dagokiela uste izan arren. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko buruaren iritziz, eskoletako hizkuntza-ereduen bitartez euskararen auzia konponduko dela pentsatzea ez da zuzena, eginkizun horretan eskolak ez ezik, herri-aginte guztiek nahiz gizarte osoak ere hartu behar dutelako parte.

Eskoletan indarrean dauden hizkuntza-ereduak hobetzerik ba al dago? Zein izan liteke hobetze-ko bidea?

Bai, noski; gauza asko hobetu litezke munduan, eta ele biko irakastereduak ere bai. Besterik da, aldiz, hobetu beharrekoa justu-justu zer den. Hezkuntza-mundua gizarte osoan txertatua dago, gizarte horren asmo, behar eta baldintzei lotua. Irakastereduez hitz egiteko orduan, ikuspuntu instituzional eta juridikoa ere kontuan hartu behar dira, besteak beste. Ofizialtasun biko autonomia erkidego batean bizi gara, eta, norbaitek euskaraz ikasi nahi badu, hartarako eskubidea du; herri-agintek eskubide hori ziurtatu egin behar dute. Gauza bera esan liteke gaztelaniaz. Hori da hemengo lege-markoa. Marko hori ahaztuta, gauzak nekez hobetuko dira.

Besterik ere badio legeak: derrigorrezko eskola-aldia amaitzerakoan, hizkuntza ofizial bien behar adinako ezagutza praktikoa izan behar dutela ikasleek. Hori ere herri-aginteen betebeharra da, hizkuntza-aukera bermatzeaz gainera. Zenaitek hori baino gehiago uste du: parez pareko elebitasunaren helburua betetzea eskolaren berezko eta bere hutsezko eginbidea dela. Ez gizaratearena, ezta herri-aginte guztiena ere, huts-hutsik Hezkuntza Sailarena eta eskolarena baizik. Gizarte osoaren eta herri-aginte guztien eginkizuna sail bakar baten eta maisuu-maistren bizkar gainera botatzen ari gara, eta horrek ez du irtenbide onik. Ez dago munduan kasu bakar bat horrela jokatzu bertako hizkuntza ahula osatu eta galbide-arriskutik atera denik.

Dena dela, eredu batek besteak baino gehiago euskalduntzen du, ezta?


Jakina. A, B eta D ereduak ez dira indar eta ahalmen berekoak, elebitasun betearen helburura iristeko edo hurbiltzeko: D ereduak helburu horretatik hurbilago uzten zaitu, eta A ereduak ondotoz urrunago. Osabetezko elebitasunaren helburua ezin da, ordea, eskola-bide hutsez eskuratu, ezta D ereduaz ere. Gizartea bere osoan hartuta formulazio aktiboagoak egin litezke, hizkuntza bien ezagutza indartzeko. Eskola-bide hutsez nekez lor liteke, aldiz, gaur egun lortzen ari garena baino askoz gehiago.

Zer deritzozu eskoletan erabiltzen diren euskarazko ikasmaterialen kalitateari?

Hobetu egin dira ikasmaterialak, eta ez gutxi, azken mendelaurdenean. Horrek ez du esan nahi arazorik ez dagoenik. Hasteko, arazo soziolinguistikoa daukagu. Haurrak euskal eskoletara bidali izan dituzten guraso gehienek, orain gutxira arte, ez dute euskarazko prestakuntza formalik izan: aurreko eskola-sistemaren ondorioz, guraso gehienek ez zekiten euskaraz idazten; irakurtzen ere ez asko. Aita-ama horiek, bat-batean, euskarazko ikasbideetan barrena sartu dituzte beren haurrak, eskolatik kanpora euskara idatziaren babes-indargarririk gabe ia.

1960ko hamarkadan ekin zitzaion ikastoletako testugintzari. Hurrengo hamarkadan bete-betean heldu zitzaion langintza horri. Euskara idatziaren eredu eman berria zen artean.

Eskoletan, nagusiki, eredu hori erabiltzea aukeratu zen. Ortografiaren aldetik oso bateratua dago testu-liburuetakoa hizkuntza. Azken urteotan ortotipografia erantsi zaio eginkizun horri. Morfologiari dagokionez, aditz-formak, deklinabidea... bateratuak daude; euskara batura ekarri dira adizki eta deklinabide-atzizkiak. Euskara batura edota, Bizkaiko esparruan, ikasleentzat prestatu den bizkaierazko eredu bateratura. Iparraldean ere bada, zenbait kasutan, antzeko eginahalik. Esanak esan, aurrera egin da ikasliburuen hizkuntza-kalitatean.



Eta ikasmaterialei dagokienez, zeintzuk dira kontu beharreko arazo nagusiak?

Arazoak bi lekutan daude, nire ustez: batetik, terminologia teknikoan, eta, bestetik, azalpen-prosa landu, erraz, argi baten pretaeran eta zabalkundeetan.

Bigarren hezkuntzan eta unibertsitate-esparruan, zenbat eta espezializazio-maila altuagoetara joan, orduan eta terminologia tekniko gehiago behar da. Terminologia-lanketa eta finkapen horrek badu oraindik zer hobetu eta zer osatu. Baina askotxo egin da. Euskal corpus-plangintzaren esparruan, nekez aurki daiteke kodetze aldetik gehiago landu den alorrik. Kodetze hutsaren hurrengo pausoetan (inplementazioan, onarpen-zabalkundeetan eta *cultivation*-lanketan) daude egungo arazo nagusiak.

Azalpen-prosa landu, erraz eta argiari gagozkiola, testu-liburuen hizkuntza-arazo nagusia horixe da: gauzak esateko modu egokia bilatzea. Ortografia arautua, morfologia bateratua eta terminologia argi-zehatzak beharrezkoak dira eta mesede egiten dute. Baina arazo nagusia ez dago hor, idazmoldean baizik. Gaztelaniaz eta beste hizkuntza askotan mendeetako ohitura dago eskola-gaiak halako maila landuan agertzeko. Usadio hori ez da hiztegiari edota sintaxiari lotutako arazo hutsa. Hiztun ikasien jardun-gune, eginbehar eta harreman-sare jakin batzuetako mintzajardunari edo idazmoldeari dagokion ezaugarri soziologiko bat da. Euskaldunok ez dugu aukera handirik izan horrelako interakzio-molderik, prosa-lanketarik eta luze-zabaleko jarduera aktiborik izateko.

Hitz egin dezagun eskoletako hizkuntzaren kalitateaz. Zer-nolako maila dute irakasleek? Zein maila lortzen dute ikasleek ikasketa-prozesua amaituta?

Irakasleen eta ikasleen hizkuntza-gaitasunaren kontu hori *continuum* bat da, eta *continuum* bati ezin zaio zuri edo beltz eran-

tzun. Otiak 100erako aldakortasun-esparrua dago, eskolan egiten den euskararen kalitate kontuan. Badira euskaraz tutik ere ez dakiten irakasleak, gero eta gutxiago izanik ere, eta badira ahoz nahiz idatziz ongi edo oso ongi egiten dutenak. Eskola munduan daude gaur egun, estatistika aldetik, euskaraz goi-mailako era landu batean jarduteko gai diren profesional gehienak. Horrek ez du esan nahi irakasle guztiak maila horretakoak direnik. Etxetik ikasitako hizkera-molde jator baina mugatuari berba-egikera jaso-formaleko erregistro landua erantsi behar izan diote gehienek, lehenik eta behin euskarazko alfabetatze-maila bat erdietsita. Urrun daude hainbat, neurri batean normala denez, prozesu hori erabat burutu izatetik. Eta gertaera horri irakasle euskaldun berrien multzo zabala erantsi behar zaio. Alde handia dago elebitasun bete lortu dutenen multzotik erdal elebidun nabarien sailera.

Beste horrenbeste esan liteke ikasleek. Ikasle batzuk euskaraz oso ondo dakitela etortzen dira etxetik. Hizkuntza-gaitasun sendo eta aberats horri aurrerabide handiak eransten dizkio euskarazko eskolak. Ez hain ondo, etxetik euskaraz gutxi dakitenei, eta, nekezago, etxetik tutik ere ez dakitenei. Denei eskaintzen die, ordea, aurrerabiderik. Gero, jakina, gelaz kanpoko, eskola ondoko eta eskolaz kanpoko jardunak erabakitzen du eskola bidez lortutako gaitasun horren ondorena: garapen bete, partziala, atzera-aurrera gabeko geraldia edo atzerabidea.

Euskara-titulu ugari ditugu, eta bateratzeko ahaleginak egiten dihardute. Nola ikusten duzu baliokidetzen auzia?

Euskarazko hizkuntza-agiriak aski bateratuak zeuden 1980ko hamarkadan. Gero, agiri-kontuak bateratu egin behar zirela eta, gauza bitxia gertatu da gure artean: batasunaren izenean aniztasuna indartu da, gogor indartu ere. Gaur egun lehen baino hizkuntza-agiri, maila-ziurtapen eta homologazio gehiago dago. Kontuak nola doazen ikusita, beldur bizia diot agiriak eta ikasketak bateratu nahian aurrera begira egiten den hainbat saiori. Agiriak bateratzeko eta euskaraz egindako ikasketak hizkuntza-agiriekin homologatzerakoan irizpide teknikoak alde batera uzten badira, irizpide mekanizisten edo operatibo hutsen ize-nean, arrisku bizia dago euskal agirien eremuak hobera ordezkerrera egiteko.

Bateratzeak ez luke kalterik, ondo egingo balitz. Homologazioak ere ez. Han-hemen planteatzen den bateratze- eta homologatze-lan horretarako ez dira, ordea, berme-neurri teknikoak behar bezain kontuan izaten, askotan. Unean uneko interes praktikoak eta lekuan lekuko eragileen eskabide zorrotzak izaten dira nagusi, entzuten eta ikusten diren planteamendu gehienetan. Ez da erraza, egoera horretan, gauzak ondo egitea.

Euskara batuaren aldeko apustua egin da, baina euskalkiak ere hortxe ditugu. Nola erabili behar dira batua eta euskalkiak ikasprozesuan?

Euskara ahoz transmititu izan da, belaunaldi batetik hurrengora, eta ahozko jarduna izan da hauspo eta ardatz. Euskara idatzia eliza alorreko dotrina- eta debozio-liburuetakora mugatu izan da XIX. mendera arte, eta oraintsura arte esparru txiki eta urria izan du hizkuntzaren idatzizko jardunak.

Orain dela 40 urte moldatu zen egungo euskara batua, eta hori da eskoletan erabiltzen dena. Testu-liburuak ezin ziren, gure

osaera demolinguistikoa kontuan izanik, herriz herri zatikatu; izugarri garesti aterako zen hori. Ikasleen hizkuntza-gaitasunari zegokionez ere ez zen ikusten, bestetik, hainbateko zatikatzak mesede handirik zekarrenik. Testu-liburuetakoa kontzeptu gehienak orokorrak dira, zenbait kasutan, unibertsalak. Eginkizun horretarako, hizkera bateratua hobetsi izan da.

Gatozen, aldiz, ahozko jardunera. Zertaz hitz egiten dugu jaikitzen garenetik oheratu bitartean? Norekin eta non? Denekin ez dugu berdin hitz egiten. Hiztun garbia bazara badakizu non, norekin eta zertaz ari zaren eta halakoetan zein euskara molde erabili. Euskara molde edo erregistro guztiak dituzu beharrezko, hiztun trebea izango bazara. Nork esan dizu neska-laguna egiteko berba-egikera gozo-erakargarria, txiste gordina kontatzeko abildadea edo erantzun lehorra emateko hizpide neurtua hamar duroko hitz dotoreak idazten jakitea baino gutxiago denik? Nola esango dugu hizkera molde informalez bideratzen den mintzaira arrunta, lekuan lekuko erregistro xumetik edo euskalkitik hain hurbil egon ohi den hizketa bihozko-intimoa, beharrezko ez dugunik? Erdal giroan jaio denak gordinago dauka, eta nekezago lortuko du, erregistroen aldaera-sorta edo barietate-zabaltasun hori. Hiztun bakoitzak jakin behar du zein jardun-gunetan ari den. Horixe da bere konpetentzia soziolinguistikoa.


Euskararen egoera kezka-iturri da. Zein da euskararen egoera Nafarroan eta Iparraldean?

Estatistikek diotena kontuan hartzekoa da; Iparraldean, belauenez belaueneko transmisioa arrisku bizian dago. Badakit zenbait, datu batzuen argitan, arrisku kontu hori lasaiago ikusten dutela. Nafarroan, aldiz, badirudi transmisio horri txukun samar eusten ari zaiola. Ikuspegi orokor batetik, badirudi belauenez belaueneko jarraipen-katea ez dela nafar-euskaldun askoren artean eten. Datu makrosoziolinguistikotatik ere ezin da gehiegi atera, ordea. Ez dakigu Iparraldeko aitona-amonak zer moduzko euskaldunak ziren, eta iloben ele biko nagusitasun-moldaera nora (eta zenbat) makurturik dagoen. Litekeena da aitona-amonak euskara besterik ez jakitea, gurasoak elebidun baina euskaldun garbiak izatea eta, aldiz, seme-alabek euskara jakin bai, baina erdaraz hobeto edo askoz hobeto moldatzea. Hortik ezin esan liteke, hiru belaualdiek euskaldun izaten jarraitzen dutenez, horko euskara arriskutik libre dagoenik. Arriskua ez da, gainera, Iparraldekoa bakarrik. Arriskurik handiena gizarte modernoak inpakturik biziena egin duen eskualdeetan, herrietan eta gizarte-guneetan dagoke, batez ere euskarari etxe-giro hutseko eta lagunarte itxiko arnasbidea besterik eman izan ez zaion tokietan. Ez daukagu begiak hain urrutiti pausatu beharrik Bizkai-Gipuzkoetako euskaldunok, arriskuaren nolakoaz eta zenbatekoaz jabetzeko.

Administrazio orokorra euskalduntzeko hainbat saio egin dira, baina kritikak ere izan dira helburuak bete ez direlakoan. Bide onean al goaz? Denbora kontua al da?

Ez da denbora kontua bakarrik. Nahiago nuke besterik esan, baina mende-laurdenean eraman den norabidea ez da, nire ustez, zuzena. Orain hobetzen ari da, eta poztu egiten naiz. Joandako urak ez du, ordea, errotarririk mugitzen. Zertan huts egin da euskalduntze-esparru horretan? Bigarren plano batean utzi da helburua, eta indar gehienak bitartekoetan (funtzionario

erdaldunak euskalduntzeko lanean, batez ere) jarri dira. Administrazioarekin euskaraz jardun nahi duten herritarrei zerbitzuak euskaraz eskaintzeak izan behar zuen, eta izan behar du, lehenengo helburua. Horrekin batera, euskara administrazio barruko lan-hizkuntza bihurtu behar da, egingarri eta interesatuen gogoko den harreman-sare, jardun-gune eta zerbitzu-ataletan. Herritarren hizkuntza-eskaera nolakoa eta zenbatekoa den



aztertu behar da horretarako, ahoz eta idatziz. Euskaraz egin dezaketen funtzionarioekin hasi behar da bestetik, horien beharrik zein diren ikusiz. Ea aurrerantzean emaitza hobetuz ateratzerik dugun. Profesional tekniko onak daude administrazio orokorra euskalduntzeko lan-programetan. Lehen ez bezalako oinarria eskaintzen du, dudarik gabe, urteen poderioz eta hainbaten dedikazio sendoz sortu den giza kapital horrek. Baikor izateko bultzadaxoa ematen du horrek guztiak.

Euskaltzaindiaren bidea hurbiletik jarraitu duzu azken urteotan. Egiguzu ikusitakoaren argazki bat.

Euskaltzaindiak baditu aski helburu garbiak. Helburu horiek, oro har, oso txukun betetzen ari da Akademia. Euskara batuari dagokionez, Euskaltzaindiaren jarduna argia eta funtsezkoa izan da. Horretan ibili den hizkuntzalari- eta aditu-jendeak badaki kontu horietan, eta begi argiz eta tenple onez jokatu du gehienontzat egokia izango den erdibide moduko bat bilatzen. Lan handia egin da hiztegiaren alorrean, orobat gramatikaren eta toponomastikaren sailetan. Hizkuntzaren corpus-lanketa horretan ondo ari da Euskaltzaindia. Arriskurik ere badu, jakina. Lehen egozten zitzaion kritikaren kontrakoa –eta eskabide xume baina zinezkoa– entzuten da orain gero eta ozengo. Doala Euskaltzaindia pausatuxeago arautze-lanean, bestela ez baitu amaren semek jakingo azken arauak zer dioen. Kontuan hartu behar du hori ere XXI. mendeko erakunde ofizial batek.

Nerea Pikabea Amundarain
Kazetaria

Helduentzako pirata ipuina

Ez aspaldi, piratak etorri ziren gure herrira. Udako arratsalde batean beraien ontziak agertu ziren gure lurren aurrean. Arrantzan ari ziren gizonek ikusi zituzten urrutira, piratak beren ontzietan izara beltzak zabaldua bi masta luzetan. Gaua noiz helduko zain ainguratu ziren, kanoiak luze herrira begira berriz ere.

Herriko jendeak mendi aldera jo genuen, ahal genituenak bilduz, ahal genuena korrituz: zaharrenak idi gurdietan atera ziren, umeak soinean zituztela, eta gazteenak ibaiaren beste aldeko artadian geratu ginen, zaldi batzuekin muinotik begira. Hirurogei bat besterik ez ginen.

Ordurako ontziak portu sarrerarantz hurbildu ziren eta, banan-banan igarotzean, itzal beldurgarriak egiten zituzten etxeetako pareta zurietan. Dozena bat ontzi beltz ziren, gure herriko portu esturantz. Kaiari sokaz lotutako traineruak ere ukitu hutsarekin birrintzen zituzten.

Guk adi begiratzen genuen gure talaiatik, isilik behatuz: bost ziento gizon izango ziren, ongi armatuak guztiak; zaldi batzuk ere bazekartzaten, distira egiten zutenak ilargiaren argitara.

Gure artean eztabaida piztu zen ea zer egin behar genuen oraingo honetan, berriz ere herria xahutzen utzi ala aurre egin, ahal genuen moduan.

Orduan atera zen umea artaditik eta, ezer esan gabe, aldapan behera jo zuen korrika; ohartu ginenerako zubia gurutzatzen ari zen, herrirantz zihoan, antza.

Aita zen atzetik, balezta bizkarrean eta ezpata eskuan, eta aitaren atzetik honen anaiak izan ziren umearen atzetik abiatu ziren hurrengoak; aldapan behera abiatu ziren denak. Orduan, nik ere gauza bera egin nuen eta nire lagunek ere bai, eta nire lagunak senideak hauen atzetik; azkenean denak jaitsi ginen herrira, goiko kaleetan barrena taldeka sakabanatu ginen eta gutariko bat eliz dorrearen puntara igo zen, porturatzearen berri eman ziezagun.

Jaitsi zenean, gertaera harrigarri bat kontatu zigun ordea, harrigarria benetan.

Umea portuan omen zegoen eta piratekin hizketan aritu omen zen denbora luzean, hauek bat-batean buelta eman eta beren ontzietara itzuli ziren arte.

Pirata ontziak nahikoa urrutiratu zirenean, denok umearengana jo genuen; pozez gainezka geunden, halako balentriaren aurrean.

Aitak besotan hartu zuen umea eta, estu besarkatu ondoren, ea gizon haiei zer kontatu zien galdetu zion.

Umeak herrian ez zegoela inor esan zuela erantzun omen zion. Denok barre egin genuen orduan. Umeak hori esan eta piratak joan! Sinestea ere kosta egiten zen. Ea ezer gehiago esan ote zuen galdetu ziotenean, umeak baietz erantzun zuen, izurritea zegoela herrian eta horregatik aurkitu zutela hutsik.

Harritu egin ginen umearen okurrentzia harekin: izurritea. Bai, ez zen argumentu txarra herritik ihes egiteko. Sinesgarria, gainera, kaleak eta etxeak hutsik dauden herri batean, ume txiki haren ahotik entzunda. Ume haren argitasuna miretsi genuen. Etorkizuneko buruzagia ikusi genuen beragan.

–Oso ausarta izan zara, mutiko, ausarta benetan! –esan zion amak begiak bustita–. Izurritea! Hau ume deabrua, hau!

–Ez al da egia, ama? –erantzun zion honek–. Ez al duzue antzeman, ama? Izurritea dago herrian, jendeak oso itxura txarra du. Begira nolako begi zuloak dituzuen, denak negarrez ari zarete beti, mina duzue barruan! Gaixo zaudete.

–Baina umea! –esan zion amak, umea inguratzen zuten gainerakoei begiratu–. Nolakoak esaten dituzun!

Baina gainerako guztiek gure begi zuloetatik begiratzen genion umeari.

–Gure etxeak utzi ditugu, hutsik eta atek itxi gabe –jarraitu zuen–. Korrika atera gara herritik, denak negarrez... Gizon gaiztoak datozenean, beti berdin egiten dugu, eta hori gaixo gaudelako da, herri osoa dago gaixo!

–Umeak arrazoi du! –hasi zen oihuka jendea.

–Baina ni ez! –txikiak, berriz–. Ni ausarta naiz eta makila batekin baleak hilko ditut eta borroka egingo dut mamuen aurka eta gauean karrakela baten barruan ezkatutako naiz! Baina ez naiz korrika aterako, ni mutil ausarta naiz eta horregatik bizardun horiei berekin eraman nazaten eskatu diet, baina ez dute nahi izan. Handienak ukitu ere ez egiteko esan dit eta beldurtuta joan dira denak.

Jon Maia
Idazlea

BOLOGNAKO ITUNA, Europako unibertsitateak bateratzeko bidean

Aldaketa garaiak Europako unibertsitateetan. XXI. mendeko beharretara egokitu nahian dihardute eta, horretarako, Bolognako Itunari gogotik ekin diote, indarrean jarri nahi dituzten berrikuntza guztiak 2010erako gertu egon daitezten. Horrenbestez, Europako unibertsitateak aldaketa horiei aurre egiteko ari dira prestatzen, egokitzapenak bideratzeko lau urteko epea besterik ez dutelako. Euskal Herrikoak, jakina, ez dira salbuespen.

Oinarrian, hezkuntza sistema bateratua ekarriko du Bolognako Itunak: titulu akademikoek balio bera izango dute herrialde batean zein bestean eta Europako edozein unibertsitatean ikasteko erraztasunak areagotuko dira. Adibidez, ikasle batek lehenengo maila Londresen egin lezake; bigarrena, Erroman; eta hirugarrena, Bilbon.

Baina horrelakoetan gertatzen den bezala, batzuek onura ugari ikusten dizkiote Bolognako Itunari eta beste batzuek arrisku handiak. Kontrakoez diote unibertsitateak multinazionalen esku geratuko direla eta, gainera, prozesuak nola-baiteko homogeneizatzea ekarriko duela. Aldekoek, berriz, azpimarratzen dute unibertsitateak gaur egungo garaietara egokitu direla eta ikasleek nahiz irakasleek aukera gehiago izango dituztela. Gainera, Euskal Herriko unibertsitateetan bada beste ardurarik: Bolognako Itunak nola eragingo ote dion euskarari.

Kredituak Transferitzeko Sistema Europarra (ECTS)

- Kreditu bat lortzeko: 25-30 ordu lanean edo ikasten
- Ikasturteko: 60 kreditu
- Graduak tituluak lortzeko: 180-260 kreditu bitartean
- Graduondokoa, masterra: 60-120 kreditu
- Doktoregoa: 300 kreditu

(Datuak behin-behinekoak dira)

Aldaketa nagusiak

Funtsean bi dira Bolognako Itunak ekarriko dituen aldaketak: kreditu sistema bateratua eta tituluak homogenizatzea sistema.

Orain arte estatu bakoitzak bere kreditu sistema zehazten zuen; 2010etik aurrera Kredituak Transferitzeko Sistema Europarra hedatuko da, ECTS delakoa. Guztira 60 kreditu izango ditu ikasturte bakoitzak eta, kreditu bat lortzeko, ikasleak 25-30 ordu bete beharko ditu ikasten eta lanean. Irakasleak, berriz, kreditu bakoitzeko 10 eskola ordu eman beharko ditu. Bi ziklo nagusi izango dira aurrerantzean: gradu eta graduondoko ikasketak. Graduak ikasketek gutxi gorabehera hiru urte iraungo dute eta horien xede nagusia ikasleei lan merkaturako prestakuntza egokia ematea izango

da. Ondoren, graduondoko ikasketak izango ditugu eta, azkenik, masterrak zein doktoregoak.

Patxi Juaristi, Hezkuntza Saileko Unibertsitateetako zuzendariak azaldu digu zein izango den joera orokorra: "Ikasleek graduak ikasketak egingo dituzte hiru urtean eta, ondoren, ia gehienek masterren bat egingo dute. Masterrek urte bateko, biko zein hiruko iraupena izango dute, eta helburuak desberdinak izango dira. Hau da, master batzuk akademiakoak izango dira, beste batzuk lan mundura zuzenduak egongo dira, eta izango da ikerketa helburu duenik ere".

Unibertsitateak gizarteari zabal-zabalik

Nolanahi ere, Bolognako Ituna hori guztiori baino zerbait gehiago da. Patxi Juaristiren esanetan, orain arte ikasleek eta irakasleek artean izan diren lan harremanak errotik aldatuko dira: "Irakasleak eskola ordu gutxiago emango ditu, baina tutoretza lana handituko zaio. Ikaslea maizago joango da irakaslearen bulegora, eta irakasleak jarraipen zorrotzagoa egin beharko dio ikaslearen lanari. Era berean, ikasleak ordu gehiago emango du liburutegian, bere kontura ikasten edo lanean".

Lifelong learning kontzeptua ere gailenduko da: "Unibertsitatea tituluak ematen dituen zentro bat baino gehiago izango da. Lanean dihardutenei ere zuzenduta egongo da, eta horientzako ikastaroak antolatuko ditu". Bolognako Itunaren bitartez, joera hori areagotu eta unibertsitateek merkatuak eskatzen dituen ikastaroak eskaini beharko dituzte.

Ikasleen kezak

Ikasleek Bolognako Itunaz zer dakiten jakin nahian, Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimenak 328 inkesta egin zituen EHUKo Leioako, Ibaetako eta Gasteizko campusetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Emaitzek erakutsi dutenez, inkesta bete zutenen %31k ez daki ezer prozesu honetaz, eta %38k aldaketa akademikoa dela adierazi du. EHBEn ustez, garbi dago Euskal Herriko komunitate unibertsitarioak ez duela Bolognako Itunaren berri.

Beste kezketariko bat da gaur egungo ikasketekin zer gertatuko den. Karrera batzuk desagertuko ote diren beldur dira ikasleak. Oraindik, baina, zehaztu gabe dago ikasketen mapa. Madrilen batzorde bat ari da lan horretan, eta 2007rako ikasketen mapa bukatuta izango zutela esan arren, dirudienez, prozesua atzeratu egingo da.

Itun honen nondik norakoetan sakondu nahian, unibertsitatera jo eta hainbat iritzi bildu ditugu, artikuluan emandako informazioa osatzearren. Hona hemen galde-erantzunak:

GALDERAK:

1. Zeintzuk dira Bolognako Itunaren alde onak?
2. Eta alde txarrak?
3. Enpresen zerbitzura ikusten al duzu?
4. Euskarari nola eragingo dio?
5. Unibertsitatea garestiago izango al da?
6. Beharrezkoa ikusten al duzu?



Xabier Etxague

EHUko Ikasleen errektoreordea

1. Lehiakortasuna, ezagutzen transferentzia, joan-etorrietarako erraztasuna, sistemen irekitasuna... Gainera, ikerketa proiektuak areagotuko dira. Azken batean, irakaskuntza eredu berria eta aktiboagoa ekarriko du Bolognako Itunak. Gauzak horrela, erakunde eta enprekin lotura handiagoa izango dute unibertsitateek.
2. Arriskuez hitz egingo nuke. Nire ustez, gehiegizko lehiakortasuna ekar dezake. Horrek titulu edo zentro batzuk bazterzea eragin dezake.
3. Ez, itunak ez du horrelako asmorik. Europako unibertsitate sistemak lehiakorra izan behar du. Xede horrek enpresekiko harremanak areagotzea dakar eta ez mendekotasunik. Azken batean, ikasleek enpresa batean egingo dute lan, modu batera zein bestera. Hala ere, ezagutzaren erabilpen soziala bultzatu beharra dago.
4. Beharrezkotzat jotzen dut bakoitzak bere izaera eta nortasunari eustea. Unibertsitateak euskara behar du, eta euskarak unibertsitatea. Euskararen zabalkundea eta iraupena, baina, gizartearen borondatearen menpe dago.
5. Ez da horrelakorik gertatu behar. Unibertsitateen finantziario politika estatuei dagokie. Bolognako Itunak ez du horren inguruan ezer zehazten. Gradu tituluetan ez da funtsezko aldaketarik izango. Masterrak, berriz, oraingoak baino merkeagoak izango dira.
6. Europako unibertsitate sistemari astindu bat eman behar zitzaion. XX. mendearen hasieran eta erdialdean unibertsitateek zuten distira berreskuratu beharra dago.



STEE-EILAS

Arantza Urkaregi

STEE-EILAS sindikatuko ordezkaria

1. Bolognako Itunak aukerak ematen dizkigu. Unibertsitateak aldatu behar dira, baina gakoa hau da: norantz? Bolognak bide eman behar liguke Euskal Herriak behar duen unibertsitate ereduaren gaineko eztabaida bultzatzeko, eman beharreko aldaketak zehazteko eta unibertsitatearen nahiz gizartearen arteko harremanen inguruan hausnartzeko.
2. Arriskuz beteriko prozesua dela uste dut. Horren adibidea zera da: itun hau goitik behera ezartzen ari direla, eztabaidari atea itxiz. Unibertsitari guztiok izan behar dugu aldaketaren jabe. Horretarako, eztabaida bultzatu behar da.
3. Ezin dugu ahaztu Bolognako Ituna zein testuingurutan sortzen den: globalizazio neoliberalaren barruan, Europar Batasunean; eta bertan, lan merkatua gero eta ezegonkorragoa da eta estatuek zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzen dute. Gainera, graduaren eta graduondokoen arteko banaketa egiteak graduondokoen merkantilizazioa ekar lezake. Gaur egun, enpresaren diskurtsoa zabalduz doa unibertsitatean; eta ez diskurtsoa bakarrik, BBVak EHUko Udako Ikastaroak finantzatzen ditu, Santander banketxearekin hitzarmenak sinatzen dira, EHU aurten hasiko da *El Correo* izena duen master ofiziala eskaintzen...
4. Neurririk hartu ezean, euskarak unibertsitatean duen presentzia murriztu egingo da. EHU graduak bi hizkuntzatan eskainiko dira, baina zer gertatuko da graduondokoekin? Bolognako Itunaren inguruan gehien entzuten ditugun esaldiak hauek dira: lehiakorrak izan behar dugula, ikasleak erakarri behar ditugula... Beraz, argi dago bultzatu behar den hizkuntza ingelesa dela, baina euskara zertarako?

5. Graduondokoak ofizialak izango dira eta prezioak publikoak; Eusko Jaurlaritzak finkatuko ditu, baina zenbatekoak izango dira? Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoarekin izan duen jarrera kezkatzekoa da. Zerbitzu publikoak bultzatzea ez da Eusko Jaurlaritzaren helburua, kontrakoa baino. Ez daukat argi unibertsitate publikoa zenbateraino bultzatuko duen.
6. Bolognakoak aldaketarako aukerak eskain ditzake. Prozesuaren arriskuei egin beharko diegu aurre, joera merkantilisten aurka eginez eta hezkuntza ondasun publiko gisa defendatuz. Baina aldaketa prozesu hori baliatu behar dugu euskal gizartearen unibertsitate eredua zehazteko eta unibertsitateek behar dituzten aldaketak guztion artean erabakitzeke.



Javi Arrasate

Unibertsitateko Euskal Irakasleen koordinatzailea. Mondragon Unibertsitateko irakaslea

1. Ezinbestekoa dela uste dut. Euroarekin eta Europako Konstituzioarekin gertatu bezala, unibertsitate sistema bateratzeko beharra ikusten dut. Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna ekarriko du. Europako unibertsitateak lehiakorragoak izango dira, eta erreferente munduan.
2. Ituna gauzatu ez denez, goizegi da alde txarrak aipatzeko. Dena dela, dagoeneko beldurra zabaldu da eta kritikak ere bai.
3. Hainbat ikasketa beti egon dira enpresen zerbitzura. Eta hala behar du izan, enpresak baitira gizartearen aberastasunaren eragileak. Funtsezkoa da unibertsitateetan ezagutzen alde teorikoa lantzea, baina ikasleak bestelako gaitasunetan ere trebatu behar ditugu: talde lanean, komunikazioan...
4. Hasiera batean ez dio kalterik egiten. Hala ere, euskarak toki duina behar du izan ikasketetan. Era berean, ikasleen mugikortasunak eleaniztasuna ekarriko du. Arlo hau zehatz aztertu eta honetan asmatu beharra daukagu, geure zilborrari begira egon gabe.
5. Orain ere garestia da. Hainbat sektore beldur dira ez ote diren graduondokoak garestiagoak izango. Espainiako agintariek salneurriak publikoak izango direla esan dute. Graduondoko ikasleek ez dute eragozpen ekonomikorik izan behar. Oro har, itun baten beharra ikusten dut. Unibertsitate pribatuan dabilzanek gehiago ordain ez dezaten.
6. Unibertsitateen arteko lehiak ikasketen kalitate handiagoa ekarriko du. Alea eta lastoa bereizten jakin behar da.

➔ ABANTAILAK

- Titulu batek balio bera izango du Gasteizen zein Parisen
- Ikasleen mugikortasuna: lehen ikasturtea Oslon, bigarrena Erroman eta hirugarrena Londresen egiteko aukera

➔ ARRISKUAK

- Ikasketa batzuk galtzeko aukera
- Ikasketak unean uneko lan eskaintzari lotuegiak



Galder Gonzalez

EHUko Ikasle Kontseiluko presidentea

1. Alde onak izango ditu, baina prozesuaren alde txarrak estaltzeko amuak baino ez dira. Itxura denez, erraztasun gehiago izango dugu atzerrian ikasteko. Atzerriko tituluak balioztatzeke sistema ere ezarriko da.
2. Alde txarrak gehiago dira. Garrantzitsuena, unibertsitateen *MacDonalizazioa*. Helburua ez da ikasleen garapena izango. Merkatuaren premiak eta beharrak asebeteko dituzten ikasleak nahi dituzte. Ikasketak ordaintzerik ez dutenak kanpoan geldituko dira. Unibertsitate publikoen gainbehera ekarriko du.
3. Europako enpresaburu nagusiek bultzatu zuten ituna; beraz, guztia esanda dagoela uste dut.
4. Euskara zokoratuta geldituko da. Atzerrira joateko aukera badugu, atzerritarrek gurera etortzeko aukera ere izango dute. Bestalde, graduondoko ikasketak ez dira euskaraz izango.
5. Dudarik gabe. Zenbakiak hala erakusten dute, argi eta garbi.
6. Ez. Horrek ez du esan nahi gaur egungo unibertsitate sistemarekin pozik nagoenik. Sakonki eraldatu behar da, baina ez era horretan. Nire ustez, Bolognako Itunak neoliberalismora garamatza.

Maria Agirre
Kazetaria

Aurkaritzako lokailuen inguruan (eta 2)

OSTERA

Honela dio EGLU-III liburukiak (103. or.), *ostera* lokailuari buruz ari dela, testu honen lehenbiziko zatian jasotako pasarteetan:

Perpau osoa kontra jarritz ere erabiltzen da inoiz, ohizkoena ez bada ere:

-*Eta min handiak al ditu? -Miñik? Esatekorik ez dauka euki. Oso nekatua dago, ostera; jausia, makal, erkin-itxura gelditu da (E. Erkiaga, Arranegi, 81).*

Egiazki, iruzkin horrek dioena (“perpau osoa kontra jarritz...”) oso berea du *ordea* lokailuak. Aurreko adibide horretan ere erraz erabiliko genuke, *ostera*-ren ordeaz, *ordea*. Baina ez *berriz* edo *aldiz*. Ez dago mintzagai alderatzerik: *hark* da mintzagai bakarra, eta hari buruzkoak dira bi iruzkinak: “minik ez dauka ia” / “oso nekatua dago”. Modu hauek ditugu hori aditzera emateko:

-*Minik ez dauka, baina oso nekatua dago.*
 -*Minik ez dauka; oso nekatua dago, ordea.*
 -*Minik ez dauka; oso nekatua dago, ostera.*

Gainerakoan, *ostera*-ren balioaz ez digu argibide handirik eskaintzen EGLUK: *aldiz* eta *berriz*-en baliokidea dela esaten digu, batetik, gehiago zehaztu gabe, eta *ordea* ere erabil litekeen esaldi bat ematen digu, bestetik. Bi erabilera desberdin direla pentsa dezakegu.

Bi erabilera horiek jasotzen ditu, hain zuzen ere, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-k, eta hirugarren bat ere bai, interjekzio gisakoa (*ordeak* ere baduena, bestalde):

ostera 2. lok. *Berriz, aldiz, aitzitik. Bera gero eta aberatsago; ni, ostera, gero eta behartsuago. Batzuk lana agintzeko; besteak, ostera, haiek agindutako lanak egiteko. // Ordea. Zutitu zen adar gainean; zori bihurria, ostera, aurka egon nonbait, eta adarrak karraska latza egin zuen. Esatea ez zen gaitza izan; egitea, ostera... Alperrik, ostera. 3 interj. (indargarri gisa). Hau bakarrik balitz, ostera! Horiek dira hitz zakarrak, ostera! Mundu honetako adua, makurra, ostera! // Nongoa da, ostera, etxeko egin gura zaigun basapizti hau?*

Argibide horiekin, ondorioztatzen da *berriz*, *aldiz* nahiz *ordea* lokailuen balioa izan dezakeela *ostera*-k. Baina horrek ez liguke pentsarazi behar hiru lokailu horiek (*berriz*, *aldiz*, *ordea*) berdin-berdin erabil daitezkeela bat bestearen ordeaz.

ORDEA

Aurkaritzaren gune desberdinen ikuspegitik (perpau osoaren elementu baten aurkaritza, alde batetik, eta perpau osoaren aurkaritza, bestetik) nahiko erraz esplikatzeko da Euskaltzaindiaren EGLU-IIIko adibide hau (99. or.) eta bi esaldien arteko diferentzia. Hitzez hitz, honela dio:

“Ondoko perpau hauek pittin bat desberdinak izango liriateke:

Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, berriz, lanean geratu naiz.

Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, ordea, lanean geratu naiz.

Lehenbizikoan, goizekoaren eta arratsaldekoaren arteko aldea edo kontrastea ematen da aditzera; goizean gauza bat egin dudala, alegia, eta arratsaldean beste bat. Bigarren perpausoko aurkaritza, *berriz*, beste nonbait dago; hor, izan ere, solaskideak uste izan dezakeen zerbait ukatu egiten dela dirudi. Goiz eta arratsalde kalean ibili naizela uste izan dezake hark beharbada, baina ez da horrela izan, arratsaldean lanean geratu naiz.

-*Gu mendira joan gara.*

-*Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, ordea, ezer esan.*


Ikusten denez, adibide honetan *ordea* lokailua jarri dugu, *berriz*-ek lekurik ez duelarik hor:

-**Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, berriz, ezer esan.**

Hor agertzen den eragozpen hori bera izango genuke, hain zuzen, goragoko adibidean *berriz* edo *aldiz* erabiltzeko:

-**Minik ez dauka; oso nekatua dago, berriz.*

-**Minik ez dauka; oso nekatua dago, aldiz.*



Ondorioen zirriborroa

Hona hemen, gaingiroki, nire ustez aurkaritzako lokailuen auke-
ra gidatzen duten irizpide nagusiak, labur.

- a) Mintzagai-alderatzean oinarritzen da *berriz* nahiz *aldiz* erabiltzea. Perpaus bateko mintzagaia eta beste perpaus bateko mintzagaia alderatzen dira, eta iruzkin bana egiten da haien gainean: iruzkinetan, kontrakotasuna izan daiteke, baina emendioa ere bai.

-Gorputzaren alde batean pistola bat zegoen; beste aldean, berriz, zafiro batzuk sakabanaturik. (Aritz Gorrotxategi: Egurra Pinotxori. Alberdania, 2002).

- b) Mintzagai-alderatzea eta iruzkinen kontrakotasun zorrotza behar da *aldiz* erabiltzeko.

-Hosto borobila duten zuhaitzak ilberrian landatu behar dira; eta hosto luzea dutenak, aldiz, ilbeheran. (<http://www.euskonews.com/0108zbk/pordada.html>)

- c) *Aldiz* erabiltzen den tokian, *berriz* ere egoki da gehienetan (probatu *b* puntuko adibidean). Alderantziz, ez nuke hainbeste esango (probatu *a* puntuko adibidearekin).

- d) Mintzagai-alderatzerik ez da behar (eta, areago, ez izatea da ohikoena), *ordea* erabiltzeko. Kasu honetan, mintzagai baten inguruan (*zenbakia*) baieztapen baten eta ezeztapen baten artean sartzen da *ordea* (aski kasu tipikoa da *ez, ordea*).

-Beraz, ukimen- eta mugimen-kontzeptutzat zeukan zenbakia gogoan; ez, ordea, ikusmen-kontzeptutzat. (Oliver Sacks / Xabier Olarra: Antropologo bat Marten. EHU, 2003).

- e) Juntagailuekin ordezkatu nahi izanez gero, *ordea* beti *bainarekin* ordezkatu daiteke; *berriz*, maiz, *eta*-rekin.

- f) Mendebaldeko *ostera* lokailuak beste hiruren balioa izan dezake (baina horrek ez ditu hirurak berdintzen).

Azken adibide batzuk

Hona hemen, amaitzeko, nik desegokitzen dauzkadan beste adibide batzuk. Hiruretan ere *berriz* erabiliko nuke nik.

-Duela bi urte lesio batek jokatzea eragotzi zidan, iazkoan, aldiz, lehen partidaren Eizagirren aurka jokatzea egokitu zitzaidan.

-Zazpi jokalaririk joan dira taldetik. Fitxaketak, aldiz, lau dira oraingoz.

-Gau euskal-galiziarra. Na Lua bertako folk eszenako talde berritzaile garrantzitsua dugu, aspaldi honetan Galiziatik kanpo ere ederki dabilena. Amaia Zubiria, aldiz, aurkezpenik behar ez duen euskal kantari garaikidea dugu, tradizioari bezainbeste modernitateari ere atxikia.

Patxi Petirena
altxupere@euskalerrria.org



Itzulurte berri on!

Pila alkalinoak eta eguzki-bateriak beteta-edo ditudala,opor osteko asmo onen lurrinean hasi naiz “munduko suhiltzaileen bilduma” osatzen, elikadura zaintzen, eta, nola ez, bada, kirol pixka bat egiten... Badakizue! Urteberritan eta lanurte berria hasterakoan... intentzio onak, zenbanahi! Eta, itzultzera itzulita, jainkoetakoren bati kemena eta indarra emateko eskatu diot, itzulurte honi ganoraz eta zentzuz ekin diezaiodan!


Eta hementxe nago berriz ere zubi erdian, hizkuntzen eta kulturen arteko zubi-lanak egitea baita, antza, itzultzaileon zeregina. Edo, zenbaitetan, denboraren eta teknologiararen aurka borrokan, erdal testuei euskal usain apur bat ematea. Han, alde batean, erdal lautada amaigabeak; han, beste aldean, gure mendixka eta haran ederrak. Ai, non ote, gure Txomin Agirre? Lehen, ez oso aspaldi, gure zubi honen azpitik ibai eder-zabal haren ur lasterra zihonan etenik gabe... Aspaldion, baina, klima-aldaketa dela-eta, ia agortuta dago errekastoa... Egia esanda, jauzi eginez ere igaro daiteke ia-ia alde batetik bestera (ez hain erraz, ordea, bestetik batera). Leku batzuetan, gainera, hodi handi batzuetan sartu eta lurperatuta utzi dute erreka, seguru aski, gainean eraiki ahal izateko. Eta antzeko zerbait gertatzen da euskaldun askoren buru barruan ere, denok dakigunez, gaur egun ez baitira ezinbesteko papera eta arkatza itzultzen hasteko, ezta tresna informatikoak ere. Maiz, zuzen-zuzenean jaiotzen dira itzulpenak itxuraz euskara hutsean idazten ari garela ere.

Aukera hain zabala izanda ere, niri behintzat, kanpokoei ezer kendu gabe, bertoko tomate ederra gustatzen zait sasoi denean. Mmmm! Ederrak dira gero, bada, benetan ere! Neguan, berriz, nahitaez Murziako tomateak jan behar, edo negutegikoak, gutxienez. Euskaldun batzuek, urte osoan, Murziako tomateak nahiago! Horretara ohituta-edo... *Allakuidaus!* Hemen ezin ditugu, bada, dirudienez, era guztietako produktuak ekoitzi, eta, beraz, kanpotik ekarritako gai asko bertakotzea-edo tokatzen zaigu; badakigu jakin, batetik, erdal esparrutik euskal esparrurako bidaia horretan produktuak gehienetan freskura galduko duela, eta bestetik, gure bezeroek zuzenean kontsumi dezaketela kanpoko produktua noiznahi, gure bitartekotzarik gabe. Begira! Alderantzizko bidean gutxienez gure eskua behar-

beharrezkoa da, erdaldunek euskal produktuen antzeko zerbait dastatzeko aukera izan dezaten. Baina, dirudienez, hemen euskaraz gutxi sortzen da... Edo sortzen duguna ere ez zaie asko interesatzen, gauza inportanteak, behintzat, nola ahoz hala idatziz, erdaraz sortzen baitira gehienetan. Nola emango diegu, bada, horrela ezer interesgarririk?

Begira! Murziako 100 kaxa tomate heldu dira atzo, euskaratzeko. Biharko! Apirilean aukeratu zituzten murtziar tomate-hazirik onenak eta mintegian erein; maiatzean, landarerik onenak hautatu, berotegian landatu; ekainean, gorako makilak sartu, aldakaitzak kendu, jorratu, sulfatatu; uztailan, eguzkitan ontzen eta gorritzen utzi... Eta guk nola demontre egin behar dugu, bada, hori dena biharko? Baratzean baditugu tomate batzuk, baina ez nahikoak; biltegitik hartu ditugu beste batzuk; lagun batek ere eman dizkigu berak zituen kaxa batzuk, eta falta zirenak osatzeko, izoztuta genituen beste batzuk ere sartu behar izan ditugu. Arduradunak mailatutako tomate batzuk ikusi ditu tartean, ukitutakoak ere bai han eta hemen... Beste batzuk berde xamarak, ongi ondu gabeak. Baina, ez da ezer gertatzen. Azken batean, tomate hauek Murziako tomateen ondoan joango dira eta jendeak aukeran du haienak zein geureak hartu. Jendea ez da, ez, goseak hilko.

Erdal produktuen euskal imitazio horretan, gu hain gutxi izanda, eta hain gutxi ekoitzen dugunez, hor ibili behar izaten dugu handik eta hemendik gauzak “lapurtzen”... Edo gutxienez, geureganatzen, guretzako izozten eta imitatzen. Txarrena da jatorrizkoa eta imitazioa elkarren ondoan eskaintzen zaizkiola bezeroari... Zuk zein aukeratuko zenuke? Izan al liteke imitazioa jatorrizkoa bezain ona? Ba... agian, bai! Denbora, gogoia eta teknika egokia izanez gero... Baina, hori bai, jatorrizko izateak badu beti plus bat. Hori ezin ukatu. Artelanetan, esaterako, imitazioa bera ere izan liteke artea. Baina, ahal dela, nahiago izaten dugu jatorrizkoa gure gelako paretan zintzilik. Janariak izoztea ere ez da kontu txarra. Eroso izaten da askotan. Haragi gogor batzuk ere, dirudienez, bigundu egiten omen dira izoztuz gero. Baina, hori bai, gehienetan produktu freskoak nahiago. Baina janari izoztuak, imitazioak... hori ez da txarrena! Txarrena da zure Rolex imitaziozkoa behin eta berriz gel-



ditzen denean... edo atzeratzen denean... ¡Déjate de chataras! ¡En mi Rolex de verdad, son las 10:57! Hau lotsa! Izoztutako tomateak jatea... pasa! Baina, gainera, ondu gabe, berde egotea, gusturik gabe, edo barruan harra topatzea... hori ez, bada!

Eta hori gertatzen da, tamalez, nahi baino gehiagotan. Zergatik? Erdararen atoiari ibili behar dugulako beti? Globaltasunak lehiakortasuna ere ekarri digulako? Lehia, norekin? Ahalik gehien, ahalik arinen. Teorian, egia esanda, ezin gara oso lehiakor izan... mundu handi hau lau katurentzat itzuli behar dugu-eta! Eta, hala ere, itxuraz lehiakor gara, besteak beste, euskal testua gehienetan erdarazkoarekin batera joaten delako. Pak osoa horrela hartuta, bai, izan gintezke lehiakor, sarritan euskararen kontura. Erdal zatiak denboran eta baliabideetan %90 hartzen badu, ehuneko hamartxo bat-edo geratzen zaio euskal zatiari, egoerarik onenean. Geratzen zaigun tarte txiki horretan, itzulpen-enpresak eta erakundeak ere geure artean lehian, eta, batez ere, denboraren aurkako lehian, nork merkeago; beti prezioak edo ekoizpen-estatistikak handik edo hemendik estutu behar; beti bezala, prezioa, presio. Gero, itzulpen-memoriak ere hortxe dira, oso lagungarri, ondo erabiliz gero; itzulpen automatikoari begira gaude oraindik, ea makilatxo magiko hori noiz asmatzen duten. Bitartean, itzultzailea denbora eta hitzen arteko borroka horren olatueta igerian. Arin, azkar, bizkor! Sarri, erdi itota. Gogoratzen, lehen, gaztelaniazko hitzen gorputzetik arima askatzen genuenean, izpiritu hutsa jaso, eta, egoera etero horretan geundela, berriz ere hitza berpiztu, euskal gorputz batean hezurramitzen zenean? Ai... Hura bai, hura, garai ederra! Lehiatzearen lehiatzeaz, topatuko ote dugu laster txinatarraren “melke-melke” dendetan edo *top mantetan* euskal itzulpenik!? Lehiakortasun bera ote dago jatorrizko produktuek ekoizterakoan? Egun batetik bestera egiten al dira erdal legeak eta txostenak? Eta goizetik gauera? Euskara zama jasanezina bihurtzen denean, batzuetan ez al da hobe, euskararen presentzia bermatzearen, erdal testuari euskaltasun-zigiluren bat ematea? “Erdal testu honi euskal usaina dario”. Pun! Taka! Pun! Taka! Azken batean, erdal testu indartsu, zuzen, sendo baten ondoan euskal itzulpen ahul, zehaztugabe edo zail, korapilotsua doan bakoitzean, euskararen balio praktikotik balio sinbolikora igarotzen baikara. Edo, bestela esanda, komunikazioaren gurgipila ixten ez bada, eta mezuak hartzailerik aurkitzen

ez badu, euskararen funtzio bakarra administratiboa izango da... edo sinboliko hutsa! Orain, ondotoxoa kostako zaigu arlo batzuetan berriz ere sinesgarritasuna geureganatzea.

Horixe, bada! GARAPEN IRAUNKORRA kontuan hartzea ezinbestekoa den garai honetan, ezin dugu ahaztu, guk ur asko izan arren gurean, ura guztion ondasuna dela, ondasun mugatua; gero eta urriagoa den ondasuna, gainera. Hodietako zuloak konpondu behar dira lehenbailehen... eta ondo pentsatu behar da ur hori non eta zertan erabili behar den. Uste dut geure tokia topatu behar dugula berriz ere hitzen merkatu handi honetan, eta ondo aztertu behar dugula zein diren gure alde ahulak eta gure alde indartsuak. Gure lanak eraginkorra izan behar du. Alegia, itzultzaileoi inoiz, zoritxarrez, grebaren bat egin behar izatea tokatzen bazaigu, zerbait igarri dadila, baten batek hutsune hori nabari dezala, bada! Hori besterik ez! Beraz, uste dut gehiago, eta, ahal dela, hobeto sortu behar dela euskaraz, buru barruko itzulpenak ere ahal den neurrian saihestuta; gutxiago eta hobeto itzuli behar dela euskarara, gaiak eta irakurle/hartzaile izan litezkeenak ondo aukeratuta; eta gehiago itzuli behar dela erdarara; eta, gure baliabideak ondo zainduta, zeregin batean zein bestean, arlo eragingarriak landu behar direla, era horretara, euskarak dagokion pisua izan dezan eta zor zaion errespetua berreskura dezan. Badugu, beraz, zer egina lanurte honetan ere. Hori, bada! Lankide guztiok, ongi etorri! Eta hitzen malabaristok, ekin poliki! Ez etsi! Har ezazue dagokizuena, zuZenean edo zuOn lain, hortxe duzue-eta mundu osoa nork euskaratuko zain. **Itzulurte berri on!**

Manu Arrasate
Itzultzailea

Eskolako ordutegiak: egokiak al dira haurrentzat? Eta gurasoentzat?

Oporraldia amaitu eta haurrak eskolara itzuli dira; era berean, gurasoak ezinbestean lotu behar zaizkio lanak agindutako egunerokotasunari. Haurrak eta gurasoak lasai-lasai egoteko eta elkarren arteko harremanez gozatzeko garaia amaitu da. Nolatan egokitu liteke helduen ordutegia eta haurrena? Zoritxarrez, bizitzak ziztu bizian, abia-dan, garamatza eta denborak agintzen du.



Alazne Petuya Seaskako arduradun pedagogikoa

Nik erranen nuke eskola ordutegiak gizarte beharrei nahiz interes ekonomiko eta politikoei erantzuten diela hein handi batean; hortaz, gizartearen premiak aldatu ahala ordutegia ere aldatuz joan da. Nekazaritza gizarteetan, esaterako, udako oporren egutegia luzaz finkatu izan da uzten arabera, gizarte horrek hala behar baitzuen. Edo gaur egun, Frantziako Estatuan otsaileko eta pazkoko oporrak eskualdeka finkatzen dira, eski estazioen sasoia luzatzeko eta gizartearen antolaketa hobetzeko.

Azken urteetan, gizarte zientzien garapenarekin –kronobiologia edo kronopsikologiaren eremuan egin diren ikerketen eskutik–, ikasleek barne erritmoei, erritmo biologikoei, eusteko dituzten premia psikologiko eta fisiologikoak aztertu eta, gaur egun, horien araberrako eskola ordutegiak aipatzen dira. Horregatik, bide errazegia iruditzen zait haurrek eskolan pasatzen duten denboraren egokitasuna ordutegiaren gorabeheretara mugatzea.

Hiru urteko haur batentzat eskola ordutegia hiru ordukoa bada, baina hiru ordu horiek eserita ematen baditu eta komunera irakasleak agintzen duenean joan behar badu, eskola ordutegiak ez die haur horren beharrei erantzuten, denbora tarte hori jasanezin izango zaiolako. Aitzitik, adin bereko haur batentzat sei edo zazpi orduko eskola ordutegia egokia izan daiteke, eskolak haur horren behar fisiologikoak aurreikusten baditu: adiera denbora, etenaldiak, loa, jana, espazioa, komunera joan beharra... bai eta behar psikologikoak ere, hala nola helduen erreferentearen beharra, familiarekiko loturaren beharra, adinaren araberrako ikaskide kopuru egokia... Azaldu berri dudan adibide hau adin guztietarako izan daiteke baliagarri. Nolanahi ere, hausnarketa ildo honetan sakon daiteke, eta ziur aski iritzi kontrajarriak aurkituko ditugu gai honen inguruan. Dena dela, ondorio gisa, erranen nuke guraso eta haurren ordutegiak osagarriak izan daitezkeela eta eskolak gizartearen aldaketetara eta horiek berez ekartzen dituzten beharretara moldatzeko malgutasuna behar lukeela.

Maite Larrañaga Haurreskolak partzuergoaren gerentea

Haurreskolak partzuergoak 0 eta 2 urte bitarteko umeak hartzen ditu eta gure helburua familia eta lana uztartzea da, bateragarri egitea, hain zuzen. Edonola ere, hezkuntza arloari dagokionez, haurrei eskaintzen zaien arreta garrantzi handikoa da, jaiotzen direnetik bertatik. Haurren bizitzaren lehendabiziko hilabete eta urteak erabakigarriak dira nortasuna garatzeko. Horregatik, arautegiak ezarritakoari jarraituz, umeek ez dute zortzi ordu baino gehiago egin behar haur eskola batean. Gure eredia Europako hainbat haur eskolatatik hartu dugu eta, horietan bezala, familiei ordutegi zabala eskaintzen diegu: goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6,30etara. Hortaz, gure sareko zentroak hamaika orduz irekita egon arren, ez dugu onartzen umeek haur eskolan zortzi ordu baino gehiago egitea. Gure iritziz, ordutegi hori zabal-zabala da eta guraso gehienek premietara egokitzen da. Beraz, gurasoen eta umeen ordutegiak osagarriak izateko ahaleginak egiten ditugu, umearen garapena eta premiak kontuan hartuz eta gurasoei zerbitzu zabala eskainiz. Familiaren eta lanaren arteko lotura edo bateragarritasuna ezin da eskoletan oinarritu huts-hutsean, eskola helburu horri laguntzeko bide egokia izan daitekeen arren. Beste bide batzuk ere aztertu behar dira, umeek gurasoekin (biek, eta ez bakarrik amarekin) denbora luzeago egin dezaten.





Natalia Moyua

Armentia Ikastolako laguntza gelako arduraduna (psikopedagogoa)

Nire ustetan, guraso eta umeen ordutegiak osagarriak dira gehienetan. Izan ere, eskola askotan –geuk egiten dugun bezala– erraztasunak eta zerbitzuak eskaintzen dira ordutegiak bateragarriak izan daitezen. Esate baterako, Haur Hezkuntzari dagokionez, goizez zaintza orduak egiten dira gurasoen ordutegiak errespetatuz. Eguerdian jantokia daukagu eta eguerdiko ordutegian zaintzak begiraleek egiten dituzte eskola orduak hasi arte. Azkenik, arratsaldez eskolaz kanpoko ekintzak ditugu, era askotakoak. Horrela, gurasoek malgutasun handiagoarekin jokatzeko aukera dute eta, haiek ezin badira umearen bila etorri, euren orde zaintzaileak etor daitezke. Dena dela, esan beharra dago oraindik ez dugula izan seme-alabaren bila etorri ez den gurasorik. Haur txiki bati ezin diozu horrelakorik egin gero! Nagusiagoei gurasoak bila etorri ez eta beste norbait agertzen bada, nahikoa da azalpen arrazoitu bat ematea. Kontuak kontu, eskolaz kanpoko ekintzetan izena ematen duten haurrak oso gustura badabiltza ere, egun osoa ikastolan emateak presio handia eragin diezaike.

Umeentzat –eta gurasoentzat ere gehienetan– egokiena goizeko ordutegia da. Lanaldiaren aurreneko orduetan ez da nekea sumatzen. Gurasoak nola edo hala moldatzen dira eskolara umeen bila etortzeko; zailtasunak tutoretza orduetara bertaratzean sortzen dira batik bat, baina, lehen aipatu dudan bezala, irakasleok malgutasunez jokatu ohi dugu.



Joseba Vivanco

Hiru seme-alabaren aita eta kazetaria

Orain dela lau urtetik hona, etxetik egiten dut lan. Hirugarren haurra jaio zenean, lan egoera berraztertu behar izan nuen. Emazteak zortzietatik hiruretara egiten du behar eta enpresak ez zion aukerarik ematen lanean bestelako ordutegian jarduteko; nireak, ordea, bai. Etxetik lan egiteak umeak eskolara eraman eta bila joateko aukera ematen dit, bai eta haiekin egoteko ordu gehiago izateko ere. Lana bukatu bezain laster, umeekin jolasten egon naiteke eta horrek norberaren bizitza kalitateari eragiten dio zuzen-zuzenean. Izan ere, ez naiz bikotekidearekin eskolatik umeak hartzeko edo eramateko ordutegien bateragarritasuna bilatzearen aldekoa, zuk eraman, nik hartu... ez gara zaintzaileak, euren gurasoak gara! Eguneroko bizitzan seme-alabekin gozatzeko eta egoteko denbora izatea baita gakoa. Hala ere, ez dut uste gaur egun ordutegiak bateragarriak egiteko aukera gehiegirik dagoenik. Nire iritziz, gure esku dagoen guztia egin behar genuke egoera hau aldatzeko, pentsamoldea aldatzeko, bai enpresetan, bai administrazioan, baita gurasoen egunerokotasunean ere... Askotan gurasoek gehiago kezkatu eta larritzen gaitu etxea edo autoa ordaintzeak, seme-alabek gurekin denbora pasatzeko dituzten premiek eta beharrek baino. *Pokémon*-en zerrenda osoa ikasi behar bada, ikasi egingo dugu!

Josune Vélez de Mendizabal
Kazetaria

Bizimodu sedentarioa eta osasuna

Duela 2,5 milioi urte inguru Lurrean agertu zenetik orain dela gutxira arte –100 urtera arte gutxi gorabehera–, gizakiak lasterka ibiltzeko premia izan du. Mamutak harrapatzen, basalandare bila eta bizilekua etengabe aldatzen jardun behar izatea oso erremedio ona izan da nagikeriari aurre egiteko eta, zer esanik ez, gure espezieak bizirauteko.

Nolanahi ere, duela mende batetik hona, industria eta teknologia garatzearekin batera, erosotasun-maila handia lortu dugu eta, hori ongizate eta bizi-kalitatearekin lotu arren, erosotasunak oso bestelako ondorioak ekarri dizkigu, arriskuan jartzen baitu denbora luze horretan bizirauteko geureganatu dugun gaitasuna.


Herralde garatuetako bizimoduak gero eta gaixotasun gehiago eragiten ditu. Tabakoa, alkohola, droga guztiak, gantz saturatu gehiegiko elikadura, gaizki baliatutako aisialdia (zirkulazio-istripuak...) eta bizimodu sendentarioa, horietatik dira gure inguruko gaixotasun nagusien jatorriak.

OMEren (Osasunaren Munduko Erakundea) arabera, egoneko bizitza da heriotza eragiten duten hamar arrazoi nagusietako bat.

Ariketa fisikoak izugarritzko mesedea egiten dio giza gorputzari. Zirkulazio-aparatuari dagokionez, ariketa fisikoak HDL kolesterolaren maila (kolesterol “onarena”) igo, tentsio arteriala murriztu, gehiegizko pisua oztopatu, insulinararen jarduerari lagundu eta, ondorioz, diabetesa garatzeko arriskua gutxitzen du. Azken batean, funtsezkoa da kardiopatia iskemikoa (bularraldeko angina, miokardio-infartua...) eta garun- eta zirkulazio-gaixotasunei aurrea hartzeko. Horrez gain, egiaztatuta dago, infartua izan ondoren, ariketa fisikoa egiten hasi eta horretan jarraitzen duten pertsonen bizi-itxaropen luzeagoa eta bizi-kalitate hobea dutela, ohitura hori lortzen ez dutenek baino. Hori guztia ez da ariketa fisikoaren zuzeneko eragin onuragarriagatik soilik; izan ere, ariketa fisikoa egiteko motibatuta dagoenak infartua eragin dioten gainerako faktoreak kontrolatzeko ere (tabakismoa, kolesterol altua, gatzaren gehiegizko kontsumoa, etab.) gogotsu jardun ohi du.

Jakina da ariketa fisikoa ona dela estresari, antsietateari eta depresioari aurre egiteko. Karolinska Institutuaren ikerketa baten arabera, Alzheimer-en gaixotasuna eta zenbait gaitz onkologiko izateko arriskua murrizten laguntzen du, bai eta hezur eta giharretako hainbat gaitz sendatzen edo aurrezaintzen ere, hala nola XXI. mendeko izurrietako bat, osteoporosia, hain zuzen.

Dena den, osasun-hezitzaileen iritziz, ariketa fisikoaren efekturik onuragarriena zera da: nor bere buruaren osasunaz arduratzen laguntzen duela. Ariketa fisikoa ez da automati-



koki egiten den zerbait, ez da egunean zehar kapsula batzuk hartzea. Motibazio hori eta bizitzeko gogo bat dira.

Azkenik, esan beharra dago ariketa fisikoa egiteak bizi-kalitatea eman, bizkortu eta, guk askotan bestela pentsatu arren, atsedeen ematen digula. Gure lana egonekoa izan arren, administrazio publikoan lan egiten badugu, adibidez, etxera itzuli eta sofan etzateko gogoia izango dugu, baina, izan liteke ondo ez sentitzea. Beraz, horrelako atsedena ez da oso indar-berritzailea izango. Ikerketa askok haxe erakutsi dute: hasierako inertzia gainditu eta ariketa fisikoa egiteak, gezurra dirudien arren, bizkortu, atsedentsazioa handiagotu eta loaren kalitatea hobetzen duela.

Zein ariketa egin?

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da ez dagoela guztiontzat balio duen aparteko ariketa-mota bakar bat ere. Hainbat aldagaik erakutsiko digute zein jardueran egin eta nola: aisialdiak, lanaldiak, ohiturek, gure izaerak edota osasunak.

Bi ariketa-mota generikoak uztartzea izango litzateke kontua: alde batetik, aerobikoak (korrika egitea, igeriketa, bizikleta...) oso onak dira bihotz-hodiak osasuntsu izateko; bestetik, erresistentziako ariketek (ariketen taulak, pisuak...) hezur eta giharrek indartzen dituzte eta zenbait gaitz prebenitzen, hala nola osteoporosia, hausturak eta hezur eta giharretako gaixotasunak. Nolanahi ere, kontua ez da atleta bihurtzea, bizitza osoan edo, gutxienez, gaztetatik egin gabe daukagun zerbaiti heltzea baizik. Hortaz, adituek sarrien aholkatzen duten ariketa fisikoa ibiltzea da, mundu osoan egin dezakeelako, lesiorik eragiten ez duelako, merkea delako eta geure inguru hurbiletik mugitu gabe egin dezakegelako.

Galdera bat sor dakiguke orduan: zenbat denboratan eta nolako abiaduran komeni zait ibiltzea? Hasteko, esan dezagun ibiltzea ez dela ilargi-argitan eta konpainia onean paseatzea. Osasuna indartzeko, azkar eta denbora jakin batean ibili behar da. Bihotza eta birikak suspertu behar ditugu eta, horretarako, nolabaiteko ahalegin-sentsazioa izan behar dugu. Sarrien aholkatzen duten ariketa 30 minutuan 3 km inguru oinez egitea izan ohi da. Jakina, entrenatu gabe bagaude, pixkana-pixkana egokitu beharko dugu helburu horretara; aurrena ikusiko dugu ea zenbat denbora behar dugun 3 kilometroak egiteko eta, ondoren, hilero-



hilero ibilbide bera egiteko denbora minutu batean murrizten saia gaitzke.

Eguneroko bizitzan badugu aukera helburu horretara hurbiltzeko: joan behar dugun lekuetara berandu iritsiko bagina bezain arin joatea. Hemen, gogora ekarriko genuke Trueta doktorea, Kataluniako traumatologo ospetsua, gerrako zauriak sendatzeko izen bereko kirurgia-metodoaren aita. Oxfordeko Unibertsitatean eskolak ematen zituen garaian irakasle lotia esaten zioten, campusean ibiltzen zenean izarak itsatsita gelditu izan balitzaizkio bezala ibiltzen zelako eta ikasgelara berandu iritsi behar zuela ematen zuelako. Egiatan, ordea, garaiari aurrea hartu zion Truetak –beste hainbat gauzatan bezalaxe– eta bihotz-hodietako arazoak prebenitzen hasia zen.

Osasuna hobetzeko ariketa fisikoa egiten hastean, maiz egiten dugu beste galdera hau ere: zenbat aldiz egin behar da aukeraturako ariketa fisikoa? Bihotzaren Elkarte Amerikarrak honako hau aholkatzen du: astean gutxienez 4 egunetan egitea eta egun bakoitzean 30 minutuan. Dena den, zehaztu behar da, adituen iritziz, onura-maila jakin bat lortuta, osasunak ez duela hobera egiten handik gora, gogotik ahaleginduta ere. Aholkatutako denbora ez da bera izango pertsona guztientzat, lehen aipatutako aldagaien arabera izango da. Adibidez, pertsona batzuek 30 minutuko saioa laburra dela pentsa dezakete; horiek, nahi izanez gero eta kontraindikaziorik izan ezean, ordubetean edo tarte luzeagoan jarduterik izango dute; beste lagun batzuek, berriz, saio batean baino gehiagotan banatu ahal izango dute egunean ariketa egiteko duten denbora.

Denboraren banaketa horri dagokionez, badakigu batzuek aste-buruetan egiten dutela ariketa fisikoa, lana edota familiarekiko betebeharrak direla eta. Ezer ez egitea baino hobea da hori, noski, baina gogoratu formula onuragarriagoa dela astean barrena saio gehiago egitea, laburragoak izanagatik ere.

Bestalde, ez dago egunero ariketa-mota berbera egin beharrik –errutina bihurtuko litzateke–; aukera sorta zabala da: oinez ibiltzea, igeri egitea, mendira joatea edota asteburuetan eskia-tzea, esate baterako.

Sendagilearenera joan behar al da hasi aurretik?

Kalkuluen arabera, infartua izandako pertsonen %3-5 ariketa fisiko gogorra egiten ari zen, ziur asko gogorregia euren egoera fisiko kontuan hartuta. Pertsona horien kasuan, horrek ez du esan nahi kirola egitea gomendagarria ez denik, baina jardueramotaren, dedikazioaren eta osasunaren arteko oreka bilatu beharra dago.

Eskuarki, 45 urtetik beherako gizon eta 55 urtetik beherako emakume ez-erretzaileek, kolesterolaren maila egokia badute eta hipertentsiodunak ez badira, ariketa fisikoa neurritz egiten hasteko ez dute zertan jo sendagilearenera.

Adin horretatik gorako pertsoneri edo, gazteagoak izanik, gutxienez zirkulazio-arazoak izateko faktore horietariko bat dutenei familiako sendagilearenera jotzeko aholkua eman ohi zaie, ariketa fisikoa nolabaiteko segurtasun-bermearekin egiten hasteko.

Aurretik bihotzeko gaixotasunik edo garun- eta zirkulazio-gaixotasunik izan dutenei edota lehen mailako senitartekoren bat ezustean hil zaienei, zuzenean kardiologoarenera jotzea gomendatzen zaie. Hark erabakiko du zein diagnosi-proba egin behar den kasu bakoitzean, gure organismoak ariketa arriskurik gabe jasango duela bermatzeko.

Inolako arriskurik ez badago, nola jakin gure osasunerako arriskurik ez duen ariketa fisikoa egiten ari garen ala ez? Horretarako, bihotz-taupaden gehieneko maiztasuna orientabide egokia da; 220ko kopuruari gure adina kenduz lortzen da datu hori. Gauzak horrela, 40 urteko pertsona batek ez luke 180 taupadako bihotz-frekuentzia gainditu behar minutuko (220-40), salbuespenetan ez bada, esprintetan, adibidez.

Bihotzaren Elkarte Amerikarrak aholkatzen duenez, taupadek gehieneko bihotz-frekuentziaren %60-75 artean egon behar dute kirolaldi osoan. Horrenbestez, aurreko kasuan 108-135 taupada izan behar dira minutuko, eta inoiz ez 180 baino gehiago.


Motibazioa izatea eta motibazioari eustea

Ziur asko, artikulua irakurtzen duten pertsona gehienek pentsatuko dute kirola neurritz egitea ona dela osasunerako. Nolanahi ere, irakurle dezenteek pentsa lezakete, halaber, zaila dela ideia hori eta eguneroko bizitzaren gorabeherak nahiz arazoak bateratzea. “Ez daukat astirik”, “Nola hasiko naiz, bada, adin honekin kirola egiten?”, “Ez al da arriskutsua izango?”, “Eta lesionatzen banaiz?”... Aitzakiak dira denak, arrazoizkoak eta benetakoak, baina aitzakiak; horixe esango nieke. Osasuna zaindu nahi duenak izaten du, bai, horretarako astirik. Gainera, lehen esan bezala, ariketa fisikorako aukera mordoia dugu eta edonork aurki dezake tartetxo bat bere agendan. Kirola eginez gero, fisikoki hobeto sentitu eta, horrez gain, beste jarduera batzuetan emandako denborari probetxu handiagoa aterako diogu.

Antzeko zerbait esan dezakegu adinari buruz ere. Adin guztietarako kirolak daude, baina ahalegin fisikoak nolabaiteko blokeo psikologikoa eragiten digu. Azken batean, garrantzitsuena ez da adina, kirola egiteko gogoia eta geure buruarekiko konfiantza baizik.

Bukatzeko, jarduera fisikoari ekitean ohikoak izaten diren bi akats aipatu behar ditugu: errealistak ez izatea eta helburu utopikoak epe laburrean lortzen ahalegintzea. Kontua ez da 25 urterekin egin ez genuena 50 urterekin egitea, ezta lagunak edota bikotekidea txunditzea ere. Pertsona horiek lesioak izan litzakete edo arazo larriagoak, kasurako frustrazioa eta porrot sentsazioa. Halakorik gerta ez dadin, gogoratu helburua ez dela lehena izatea, osasuna hobetzea baizik, eta hori epe luzean baino ez dela lortzen.


Ismael Gorostiza



Dudas e incorrecciones habituales

Arenas, Paula
Edimat
Madrid, 2005
247 or.


Nola idazten da gaztelaniaz: *asimismo*, *así mismo* ala *a sí mismo*? *El aula* esaten bada, zergatik esan behar da *esa aula* edo *las aulas*? *Se sobrentiende* ala *se sobreentiende*? Liburu honek horrelako galderei erantzuten die. Zalantza nagusiak hiztegi baten modura aurkezten direnez, oso erabilerraza da. Horrez gain, zenbait lokuzio, latinezko adierazpenen zerrendatxoak, generoa dela-eta izaten diren bestelako arazoak, zenbakiak sorrarazten dituzten zalantzak... erraz kontsultatzeko moduan eskaintzen ditu.



Euskal aditza. Trinkoa eta Laguntzailea

Bostak bat
Adorez 10
Bilbo, 2006
299 or.


Hiztegigintzaren arloa jorrazteko lana dela-eta hain ezaguna egin zaigun *Bostak bat* lan talde emankorrek, oraingoan, euskal aditzaren gaineko liburu berria eman du argitara, berriz ere Adorez enpresaren eskutik. *Euskal Aditza. Trinkoa eta Laguntzailea* izenburupean, liburu honetan euskara batuko aditz joko guztiak azter ditzakegu: batetik, aditz laguntzailearenak, alfabetikoki; eta, bestetik, aditz trinkoarenak banaka eta Euskaltzaindiak proposatutako eraren arabera. Halaber, bizkaiera eta zubererako aditzen pareki-deak ere jarri dira, bi euskalki hauen formak jasoz, euskalkia nahiz euskalkitik abiatuz batua ikasteko bideak erraztearren.



Taller de lectura: el método

Kohan, Silvia Adela
Alba
Barcelona, 2006
180 or.

Nola pizten da irakurzaletasuna? Nola sorrarazi irakurtzeak dakarren atsegina? Ezin bazaio inori irakurtzeko agindu, nola erakutsi irakurketarekin ondo pasatzen? Egileak urte asko eman ditu langintza horretan, txikiekin, gazteekin eta helduekin; eta liburuan berak urteetan erabilitako lan metodoa eskaintzen digu: tailerretan, taldean... erabiltzeko metodoa.



L. Luma berrien eleak (4. zenbakia)

Idazle Eskola
Bergara, 2006
64 or.


Ikas daiteke euskaraz idazten? Jakina, eta horixe da Idazle Eskolan dihardutenek arian-arian erakutsi nahi digutena. Lan horren emaria dugu *Luma berrien eleak* aldizkaria. Azken alean eskola horretako idazleek literatur genero asko jorratu dituzte: narrazioak, poesiak, liburuen iruzkinak, iritziak eta abar. Elkarriketaren atala Anjel Lertxundirekin izandako solas interesgarriak osatzen du. Aldizkariaren aurreko aleak sarean irakur daitezke hurrengo helbide honetan: <http://ieskola.asmoz.org/>



Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza ohituretan eragiteko plana

Unanue, Aitor
Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea
Lasarte-Oria, 2006
145 or.

Lasarte-Oriako Udaleko Diruzaintza atalean euskararen erabilera bultzatzeko izandako esperientzia eta gorabeherak azaltzen dizkigu egileak. Planaren helburu nagusia atal horretako lau langileen lan hizkuntzari eragitea zen, batez ere ahozko harreman formal eta informaletan. Ordura arteko planetako oinarrian gizabanakoa bazegoen ere, oraingo honetan taldea bera izan da abiapuntua, hau da, taldea izan da hizkuntz egoera aldatzeko erabili den indarra.



Administrazio Zuzenbideko Berbategia

Etxebarria, Arantza; Gallastegi, Cesar;
Urrutia, Andres; Urrutia, Esther
Deustuko Unibertsitatea
Bilbo, 2005
70 or.

Hona hemen Deustuko Unibertsitateak argitara eman duen *Minor Bilduma* izenekoaren hirugarren uzta. Bilduma honetan, lege testuak, berbategi juridikoak eta zuzenbidea euskaraz aztertu eta lantzeko bestelako lanak jasotzen dira. Berbategi honek, bada, erabilera arrunteko adierazpenen atal orokorraz gain, atal bereziak ditu, besteak beste, funtzio publikoaren zuzenbidea eta hirigintza. Lan interesgarria, benetan, euskaraz eta gaztelaniaz lan egiten duten profesionalentzat.

JAUN ZURIA

Euskaldunon ahoz ahoko tradiziotik dakigunez, Mundakako herriak bisita berezi bat izan zuen bederatzigarren mendearen azken antzean. Eskoziako erregearen alabaren bat omen zen eta haurdun zegoen, mundakarek euren hondartzan deslari eta errukarri aurkitu zutenean.

Emakume horren jatorriaz zertxobait jakin arren, inork ez zekien argi mundura etortzeko zen haur horren aita nor izan zitekeen, amak berak ez omen zekielako zehatz-zehatz. Batzuen ustez, eskoziar printzeren bat, beste batzuentzat Sugaar, Mari Anbotokoaren senarra, eta hirugarren batzuentzat Mundakatik baleatan-edo joandako santimamiñetar arrantzalaren bat.

Behin Mundakaraz gero, emakume misteriotsu hori, Busturiko Lekobide jauntxoak hartu zuen alabaordetzat bere etxean eta, ondo baino hobeto esateaz gain, euskaldundu ere egin zuen etorkizunari begira.

Heldu zitzaion printzesa horri haurra izateko eguna eta ume eder eta polit hori hazpegiak ondo zituela jaio zen, egin ere. Lekobiderenean bizipoza zen nagusi eta jauntxorik jauntxo Bizkai osoan zabaldu zen ume horren berri.

Ume zurixka, begiurdin eta ilehoria haziz eta heziz zetorren eta Lekobideren eskutik ikasi beharreko guztiak ikasi zituen, etxean etxeko gauzak eta kanpoan kanpokoak.

Urteak joan urteak etorri, berri larriak eta norbere onetik ateratzekoak heldu ziren Bizkaira eta, hoba ez, Lekobideren belarrietara. Nor eta Ordoño, Leongo erregearen semea, Bakioraino sartu zela zabaldu zen Bizkaiko jauntxoan artean.

Zer edo zer egin behar zela eta, jo adarrak hartarako bost mendi ospetsuetan, hots, Sollube, Oiz, Gorbeia, Ganekogorta eta Koltizan, eta Gernikako Arbolapean elkartu ziren Lekobide eta gaisetiko jauntxo guztiak.

Ordoñori aurka egitea erabaki zuten. Lehenengoz, bakez joan ziren Ordoñorengana baina hura ez zegoen atzera egitera eta gainera mespretxu bezala edo, baldintza bat jarri zuen bere aurka gerra egiteko. Hauxe: errege odolekoa izan behar zuela bere aurkako buruzagiak, bazekielako, antza, Bizkaian ez zegoela errege odolekorik.

Lekobidek orduan, bere etxean jaio, hazi eta hezi zuen hogeita bi urteko gaztea izendatu zuen Ordoñoren kontrako kapitain lanak egiteko, bera baitzen errege odoleko bakarria bizkaitarren artean. Beste jauntxoetarik inork ere ez zuen ezetzik esan beldur sartuak jota dardarotsean zeudelako.

Izendatutako eguna heldu zenean, han zeuden Arrigorriagako Padura lur zelaian Ordoño bere jarraitzaileekin alde batean eta bizkaitar guztiak bestean, errege odoleko kapitain gaztea, Busturiko Lekobide eta Durangoko Santxo Estigiz aurretik zirela.



Jaun Zuria, Gernikako Batzar Etxean dagoen olioaren arabera (XVI. mendea).

Hazi zen norgehiagoka eta han ez zegoen bizkaitarrei irabaztekorik. Padura guztia ziprztindu omen zen odol gorritz eta gero hortik etorri omen zitzaion “Arrigorriaga” izena bera ere.

Behin Ordoño hilez gero, bizi-rik geratu ziren ordoñotarrak itzuli egin ziren orpoetan har barik etorritako bideetatik, atzera begiratzen ausartzen ez zirela. Bizkaitarrak atzerik hara joan zitzaizkien, harik eta Luiaondoko Malato zuhaitza jo arte, eta hantxe jarri omen zuten mugarria, armak lurrera botata.

Behin bakea lortuz gero, bizkaitarrek lur eman zieten alde bateko zein besteko hildako guztiei. Ordoño, gerokoek ere jakiteko lekukotzat edo, Arrigorriagako eliz atarian hilobiratu omen zuten, harrizko hilobi batean burdinazko hesi batez inguratutik.

Bizkaitarrak libre geratu ziren eta aurrerakoan jaurerria sortzea pentsatu zuten, Bizkaiko lurraldea han-hor-hemengo erasoetatik jagoteko.

Pentsatu eta egin. Handik geroago batera, Gernikan elkartu ziren Bizkaiko jauntxo guztiak eta Lekobiderenean gizondu eta kapitain lanetan Paduran garaile atera zen mutil gaztea Bizkaiko Jaurerriko lehen jaun izendatzea onartu zuten, aho batez egin ere gainera.


Izenetik hasi ziren. Jaun Zuria izango zen bere izena eta egia ala ez, horrela ezagutzera eman zen Bizkaiko Jaurerriaren historian.

Izena eman eta gero, itun bat egin zuten. Jaun Zuria izendatu berriari lur, baso, ola, meategi eta abarren eskubideak eman zizkioten eta horren truke Jaun Zuriak zin egin zuen berak eta beraren jarraitzaileek bizkaitarren askatasuna eta frankiziak gorde eta babestuko zituztela.

Egia edo ez, horrelaxe kontatu eta idatzi izan da Bizkaiko Jaurerriaren sorrera. “Ezerezetik ez omen dator ezer” dio herri esaerak, baina hau etorri egin zaigu. “Denborak agertuko digu elurra mendian”.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta
Euskal Filologian doktoa

Hit z gurutzatua k



EZKER-ESKUIN

1. Ekuatore-Afrikako estatua. 2. Bizkaieraz, duk. Giza Immunoeskasiaren Birusaren siglak. 3. Ibar, bailara. Behar, egiteko. 4. Ez eme. Automata. 5. Kontsonantea. Iratzea. Sufrea. 6. Leherkari mota. Herri hizkeran, eta. 7. Galdetzaila. Setak. 8. Una, neka. Partitiboaren atzizkia. 9. Bibliako pertsonaia.

GOITIK BEHERA

1. ... ere, hala eta guztiz ere. 2. Errepikatuz, ikara. Meatzea. 3. Atzizkia. Gizon izena. 4. Aran mota. Kasik, abantzu. 5. Nitrogenoaren ikur kimikoa. Zer lekutarat. Kontsonantea. 6. Kontsonante errepikatua. Ravelena, ezagunena. 7. Hegazti mota. Oinaze. 8. Bi ken bat. Tik-..., erlojuaren hotsa. 9. Kaiak.

Letra zopa

A	G	I	L	T	Z	A	K	D	L	A	U
N	Z	R	O	E	I	N	D	I	O	H	A
U	O	E	U	K	P	I	L	R	I	P	U
T	A	L	D	I	X	O	P	U	A	T	J
Z	I	A	R	L	N	O	K	Z	A	U	O
A	S	A	K	E	L	A	K	O	A	D	L
R	T	S	E	T	J	B	E	R	A	J	R
E	K	I	S	U	M	U	S	R	A	P	E
L	P	A	I	Z	I	H	R	O	K	D	O
K	A	O	K	E	R	R	U	A	T	E	B

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan soinean edo aldean eraman ohi ditugun 8 gauraren izen arruntak. Izenok ezker-eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 944 159 512
- Argia: 943 371 545
- Berria: 943 304 030
- EIZIE: 943 277 111
- Euskal Herrian Euskaraz: 943 445 665
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 946 031 000
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 944 158 155
- HABE: 943 022 600
- Zubiarte Euskaltegia: 948 361 091
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945 017 600
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945 018 110
- Ikas eta Ari (IKA): 945 288 922-944
- IRALE: 945 274 400
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945 017 656. FAX: 945 017 603
- Kultura Saila: 945 019 464
- NAPIko Euskaltegia: 848 423 319-351
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848 423 349-351
- Udal Euskaltegiak: 944 406 217 943 028 100
- UZEI: 943 473 377

Soluzioak

Sakelakoa, gilitzak, erlojuak, diru-zorroa, eraztuna, lepokoa, betaurrekoak.

Letra zopa

9. Nasak.
Norat. R. 6. Gg. Boleto. 7. Ollao. Min. 8. Bar. Tak.
1. Halaz. 2. Dar. Mea. 3. Kor. Gorka. 4. Okaran. Ia. 5. N.
Goitik behera:
Rik. 9. Aaron.
5. L. Garra. S. 6. Amonal. Ta. 7. Zer. Temak. 8. Aki.
1. Kongoa. 2. Dok. GIB. 3. Haran. Lan. 4. Ar. Robota.
Ezker-eskuin:

Hit z gurutzatua k